



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 13an

65 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Kirolari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2.or.).

—Foru Lege proiektua, abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena (45. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Kirolari buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2001eko apirilaren 9ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hona 1. artikulurako proposatzen dugun testua: "Foru Lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean kirola arautzea"

Zioak: ez da beharrezkoa lege baten helburuari buruzko artikuluko batean eskumenen eremua eta marko juridikoa aipatzea.

2. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. artikuluan, ondoko testua kentzea proposatzen dugu: "Konstituzioak: eta gainerako lege sistemen barnean"

Zioak: argi da hori; aipatzea sobran dago.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

"Arautu eta antolatzea" hitzen ordez "arautu, antolatu, sustatu eta koordinatzea" jartzea.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe proposatzen dugu:

2. idatz-zatiko zati bat kendu eta honela gertatzea: "Kirolak elkarbizitza ona, gizarte kohesioa eta barne-lotura eta guztien garapen ekonomikoa eta ongizatea sustatzen ditu."

Zioak: 1. idatz-zatiko erreplikak errepikatzen du

5. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. artikuluko 2. idatz-zatiko "ekonomiko" hitza kentzea.

Zioak: Egia bada ere kirola lagungarri gerta daitekeela kolektibo baten garapenerako, oso ere eztabaidagarria da kirolak bultzaturiko garapena termino ekonomikotan zenbatets daitekeenik. "Ekonomiko" kalifikatiboa sartzeak garapenerako

behar ez den muga bat –gainera, gaizki uler daitekeena– ezartzen du.

ENMIENDA NÚM. 6.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2.3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testua ondoko testuarekin ordeztzea:

“Herritar guztiek eskubidea dute libreki eta borondatez kirol egiteko, berdintasun baldintzetan eta inolako bazterkeriarik jasan gabe”.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hona, dagoenaren ordeztzea, proposatzen dugun testua:

“Nafarroako Gobernuak, guztiek kirola ezagutu eta egin ahal izateko baldintza eta aukera berak dituztela bermatzeko, honako printzipio zuzentzaile hauek kontuan izanik garatuko du kirol-politika:

a) Ariketa fisikoaren eta kirolaren esparruko hezkuntza eta jarduera hezkuntza-sistema orokorrean sartzeko, maila eta arlo guztietan, bai eta hezkuntza berezian ere.

b) Kirol-elkartegintza sustatu, babestu eta arautzea, bere agerpen guztietan.

c) Kirol-kudeaketa toki-entitateek kirolaren esparruan dauzkaten eginkizun berekiekin koordinatzea, eta entitate horien ekintzei babes ematea.

d) Pertsona ezinduei eta gizarte-sektore behartsuenei zuzenduriko kirol-hezkuntzako eta gorputz-hezkuntzako programa bereziak taxutu eta burutzea, horiek guztiek erraztasun eta aukera gehiago izan ditzaten kirola egin eta gorputz-hezkuntza izateko.

e) Kirola esparru guztietan sustatzea eta kirola egiteko bitartekoak eskaintzea, bizi-kalitate hobea eta gizarte-ongizate handiagoa erdietsi ahal izateko.

f) Emakumearen kirol-arloko berdintasunari eta emakumea maila guztietan kirola egiten hasteari laguntzen dioten baldintzak sustatzea.

g) Ariketa fisikoa eta kirola ohitura osasungarri gisa sustatzea.

h) Lehia-kirola eta errendimendu handikoa kirol-federazioekin eta gai horretan eskudun diren beste entitate batzuekin batera sustatu eta planifikatzea, mugimendu olinpikoaren printzipioei jarraituz egin dadin begiraturaz.

i) Kirol-hezkuntza eta -ezagupenak antolatu eta ezagutaraztea, kirol-eskolak sustatzea –kirolari behar bezalako prestakuntza emateko eta haien trebakuntza adituek emandakoa eta jarraia izan dadin– eta eskola-adinekoen kirol-jarduera berariaz zaintzea, bai irakaskuntza publikoan bai pribatuan.

j) Prestakuntza egokia eta adituek emandakoa izan dezatela kirolaren kalitate teknikoa oro har igo dadila lortzeko beharrezkoak diren teknikari profesionalek, daukaten jakintza etengabe gaurkotuz eta hobetuz maila, alderdi eta espezialitate guztietan.

k) Kirolari behar bezalako osasun-kontrola egin diezaieten begiratzeko eta kirola egiten dutenen osasuna bermatzeko neurririk egokienak hartzea.

l) Instalazioei behar bezalako kontrolak egin dakizkien begiratzeko, bai eta segurtasun-neurririk egokienak hartzea, bertataruriko ikusleek nahiz kirol-jardueraren antolaketarekin zerikusia duten gainerako pertsonak kalterik jasaten ez dutela bermatzeko.

m) Kirola egiten denean ez indarkeriarik ez kirolari arrotz zaizkion moduen bidez lehiaketen emaitzak alda ditzakeen jarrerarik izan ez dadin begiratzeko.

n) Kirolari aplikaturiko zientzietan ikerketa garatzea, kirolaren kalitatea hobetzeko.

ñ) Beharrezkoak diren ekipamendu guztiak izanen dituzten kirol-instalazioen sare orekatu bat planifikatu eta programatzea foru-lurralde guztian. Horretarako, ahal den neurrian, mota guztietako ekimenak hartuko dira kontuan, eta kirola egiteko instalazio, ekipo eta materialak modurik onenean erabiltzeko ahalegina egingen da.

o) Toki-korporazioek eta hirigintza-antolamendurako planetan eskumena daukaten departamentuek kirol- eta aisialdi-ekipamenduetarako beharrian sozial eta kolektiboak asetzeko adina lursail erreserbatzen dutela begiratzeko. Horretarako, behar diren estandarrak ezarriko dira.

p) Natur ingurunea behar bezala aprobetxatzea egokien diren jolas- eta aisialdi-jardueretarako.

q) Nafarroako herri eta eskualdeetan sustraituriko kultur agerpen tradizionaletan kirola txertatzen laguntzea, bai eta herri-kirolaz eta kirol tradizionalaz jabetzen laguntzen duten ekitaldi guztietan ere.

r) Bertako kirol-modalitateak estatuko eta nazioarteko esparruetan sustatu eta ezagutaraztea.

s) Gorputz-hezkuntzari eta kirolari buruzko informazio eta dokumentazioa bildu, ordenatu, hornitu eta ezagutarazi; bereziki, programei, esperientzia tekniko eta zientifikoei eta ezagutu edo ezagutaraztea komeni den beste jarduera batzuei buruzko ikerketen eta azterlanen emaitzei buruzkoa.

t) Sustapen-lana egitea erakunde eskudunek hobariak, onurak eta tributu-salbuespenak ezar ditzaten kirolaren sustapen eta garapenari laguntzeko.

u) Kirolariak gizarte-aurreikuspeneko sistemen bitartez behar bezala babestuta egon daitezen sustatzea.”

Zioak: helburuak argiago eta zehatzago idatzita daude.

8. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko zenbait letra kentzeko proposamena

3. artikuluko h), k) eta o) letrak kentzea proposatzea

Zioak: hobekuntza tekniko gisa proposatzen dugu hori, letra horietan jasotakoak, berez, kirol politikaren helburuak edo administrazio jarduketa guztien helburu orokorrak direlako.

9. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

3. artikuluko h), k) eta o) letrak kentzeko zuzenketa.

3. artikuluko h), k) eta o) letrak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: hobekuntza tekniko gisa, Nafarroako Udal eta Kontzejuen FederaZioak: iradoki duenari jarraituz.

10. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko n) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kirol egiteak pertsonentzat eta jendemultzoentzat ekartzen dituen balore eta onurekin bat etortzeko, lege honetako 2. artikuluko 1 eta 2. idaz-zatietan ezarritakoari jarraituz, Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna da, aurrekontuen planifikazioa egiteko daukan eskumena gauzatzeko, bermatzea jarduera horrek behar duen finantzaketa duela.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. a) letraren amaieran testu hau gehitzea proposatzen da:

“Azken finean, “guztientzako kirola” erraztuko duten baldintzak sustatuko dira, arreta berezia jarritz aisia betetzeko jarduera fisikoetan eta kirol jardueretan, kirola modu jarraian josteta eta jolaserako eta osasuna hobetzeko egin ahal izateko.”

12. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

3. artikuluko a) letrako azken lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“emakume gutxi izaten diren kirol arloetan” testuaren orde, “behar hainbat emakume ez dauden kirol arloetan”.

Zioak: proposaturiko testua hobetzea.

13. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

3. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa.

Hirugarren lerrokada bat gehitzea proposatzen dugu. Hona haren testua:

“Lehentasuna emanen zaio oinarrizko kiroleko kirol-jarduerak sustatzeari, hori baita herritarrek ahal den eta gehien kirol egin dezaten bermatzeko modua”.

Zioak: Gure ustez, kirola maila guztietan sustatzeaz gainera, lehentasuna eman behar zaio oinarrizko kirolari, halako moduan non gizartearen gauza orokorra bihurtuko den kirol egitea, hartara oinarri sendoak jarrita goi mailako kirola sustatzeko.

14. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko b) letra aldatzea proposatzen da. “Goi mailako kirola” esaten duen tokian, “Kirola, alde guztietatik eta era guztietan” esan behar du.

Zioak: III. tituluan aipaturiko kirol jarduera guztiak (kirola guztientzat, kirola adin guztietan, unibertsitateko kirola eta goi mailako kirola) dira bultzatu behar direnak, eta ez jarduera jakin batzuk besteen kaltetan.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko c letra aldatzeko zuzenketa testua gehituz. Honela geratuko da:

“Kirol elkarteak sortzera eta, oro har, gizarteak parte hartzera eta kirol arloko boluntarioak egotera bultzatzea, elkarteetako eta federazioetako egituren funtzionamendu demokratiko eta parte-hartzailea zainduz”.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko e) letrako 3 eta 4. lerroak aldatzeko zuzenketa.

Bi lerrokada horiek testu honekin ordeztzea:

“Gorputz eta kirol hezkuntza bultzatu, ezarri eta garatuko da maila, gradu eta hezkuntza modalitate guztietan, eta kirola eskola adinean sustatuko da jostetarako edo lehiarako gorputz eta kirol-jarduerarekin.”

17. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko e) letra aldatzeko proposamena: “Adingabeak babestuko dira eginahalean” hitzen ordeztuz “Adingabeak babestuta daudela bermatuko da” hitzak jartzea.

Zioak: Administrazioak adingabeen eskubideak bermatu behar ditu balizko erabilera ekonomiko, politiko eta abarretatik, eta lege honek horretarako tresna bat izan behar du. Ez da aski asmo hutsak azaltzea.

18. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko f) letra aldatzeko proposamena: “Kirol jarduera eginahalean Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan zabaltzea” testuaren ordeztuz “Kirol jarduera Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan zabaltzea bermatuko da”

Zioak: Administrazioak bermatu behar du ematen dituen zerbitzuak erkidegoko lurralde osoko herritarrengana iristen dela, kokapen geografikoa bazterkeriarako elementu bat izan gabe.

19. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko “m” eta “n” letrak aldatzeko zuzenketa. Hona proposatzen dugun testua:

“Kirol arloko babesleak egon daitezzen eta enpresek kirol jardueretan lagun dezaten erraztea eta sustatzea, kirol zerbitzuetako erabilzaileak, administrazio publikoak eta enpresak inplikaturik kirol jarduerak erantzukizunez denen artean finantzatzeko; horretarako, Administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu kirola eta kirolariak babesteko helburu politikoak, ekonomikoak edo bestelakoak direla-eta gertatzen den gehiegizko esplotaziotik.”

20. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko m) eta n) letrak aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko m) eta n) letren ordean ondoko testua jartzea proposatzen dugu:

“m) Kirol zerbitzuen erabiltzaileak eta enpresak inplikatzeko kirol jarduerak denen artean finantzatzeko, azken horien babesa eta lankidetzaren enpresariala erraztuz eta sustatuz.”

Zioak: Testu berri batean batzea proposatzen dugu, proiektuak aurreikusten duen kirol politikaren helburua hobeki argitzeko.

21. ZUZENKETA**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 3. artikuluko m) eta n) letrak idatzati bakarrean batzea proposatzen dugu, ondoko testuarekin:

“m) Kirol zerbitzuen erabiltzaileak eta enpresak inplikatzeko kirol jarduerak denen artean finantzatzeko, azken horien babesa eta lankidetzaren enpresariala erraztuz eta sustatuz.”

Zioak: hobekuntza tekniko bat egitea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak iradoki duenari jarraituz.

22. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari testua aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko m) letrean ondoko testua gehitzea proposatzen da: “...kirol jardueren arloan, arreta berezia jarri guztientzako kirolean eta eskola garaiko kirolean, horiek baitira parte-hartzaile gehien biltzen dituzten kirol jarduerak, nahiz eta gutxiago erakarri kirol babesleak eta enpresen laguntza”.

Zioak: Nafarroako administrazio publikoak bereziki zaindu behar dute parte-hartze zuzena sustatzen duten kirol jardueren finantzaketa egokia izatea, baina ahaleginak egin behar dituzte ere

balizko diru-iturri osagarriak ez daitezela beti goi mailako kirola sustatzera bideratu.

23. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko k) letraren bukaeran ondoko testua gehitzea:

“uneoro zainduz kirol egitea eta ingurumena babestea bateragarriak izan daitezela”.

24. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari letra bat gehitzeko zuzenketa. Letra hau da:

“Behar diren neurriak hartzea kirol gertakari guztietako parte-hartzaileak arriskuetatik babesturik daudela bermatzeko.”

25. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari letra bat gehitzeko zuzenketa.

3. artikuluari letra bat gehitzea proposatzen dugu.

“Oinarrizko kirola eskola mailetatik sustatzea beste edozein kirol jardueraren gainetik, hori baita gakoa Nafarroako kirola maila guztietan gara dadin”.

26. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari letra bat gehitzeko zuzenketa.

3. artikuluari letra bat gehitzea proposatzen dugu.

“Kirola ohitura osasuntsu gisa sustatzea, eta hori sustatzen duten kirol gertakari guztiak laguntzea”

27. ZUZENKETA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

3. artikuluari letra bat gehitzeko zuzenketa.

3. artikuluari beste letra bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Ezgaitasun fisiko, psikiko, zentsumenezko edo mistoak dauzkaten pertsonak kirol egin dezaten sustatzea, gizartearen guztiz sarturik egon daitezen laguntzeko”.

Zioak: Kirola pertsona guztiei zabaltzea, daukan egoera fisiko eta psikikoari begiratu gabe.

28. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluari letra bat gehitzeko zuzenketa.

“q) Kirolari nafarrek nazioarteko lehiaketa ofizialetan eta lehiaketa olinpikoetan parte har dezaten sustatzea”.

Zioak: Foru legearen helburuen artean sartzea kirolari nafarrek nazioarteko lehiaketetan eta lehiaketa olinpikoetan ari daitezen sustatzea, hori baita Nafarroako kirolariak kirol eremu guztietan guztiz aitorturik egon daitezen bermatzea.

29. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 3. artikulua eta gero beste artikulua bat gehitzea, honako testuarekin:

3. bis artikulua. Kirolak Nafarroan izanen duen antolaketa instituzionala administrazio-koordinazioaren, entitate publiko edo pribatuarekin lankidetzan aritzearen eta horietan parte hartzearen printzipioei jarraituko zaie.

Zioak: garrantzitsua da argi uztea legeak lankidetzaren ez agindua, Gobernuaren proiektuan batzutan irudi lezakeen bezala– ezartzen duela antolamendu printzipio gisa.

**4. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****30. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluko g) letra aldatzeko zuzenketa.

4. artikuluko g) letrari testua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“eta kirol instalazioetan segurtasun arauak heretsiki betetzen diren kontrolatzea”.

31. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 5. artikuluko 2. idatz-zatia, “i” letra kenduta, 4. artikuluko testura aldatzea.

32. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 4. artikuluari honako testu hau gehitzea:

“Nafarroako Gobernuak, arau bidez, bere erakunde autonomoen esku utzi ahal izanen du Nafarroako kirol politikaren plangintza egiteko eta plangintza hori betetzeko ardura”.

33. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

4. artikuluko e) letran, ondoko testua gehitzea proposatzen dugu: “kirol modalitateen berezitasunen arabera”.

Zioak: kirol modalitate bakoitzak bere berezitasunak dauka; hori dela eta, araubide orokorra ezin zaie modalitate guztiei guztiz aplikatu.

5. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

34. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua kentzeko zuzenketa.

35. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko e) letrak ondoko testua izanen du:

“e) Eginkizun publikoak egiten ari direnean Nafarroako kirol federazioei laguntzea eta haiek koordinatzea eta, kasua bada, Nafarroako beste kirol erakunde batzuk ere bai haien jarduera pribatua ezertan eragotzi gabe”.

Zioak: lege proiektuak administrazioaren kirol jarduera guztiekiko asmo paternalista gehiegizkoa islatzen du.

36. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko 2. idatz-zatiko f) letra kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Nafarroako nahiz beste edozein lurralde eremutako lehiaketa ofizialak antolatu, sailkatu eta baimentzeak kasuan kasuko federazioaren ardura izan behar du. Ahalmen hori dagokion federazioaz beste entitate bati emateak bidea ematen du hartu beharreko erabakietan irizpide politiko hutsak kirol irizpide hertsia direnen gainetik jartzeko; hori, zalantzarik gabe, Nafarroako kirolarien interesen kalterako izanen litzateke.

37. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko 2. idatz-zatiko g) letrako testua aldatzea proposatzen da. Hona testua:

“g) Nahitaezko eskolaren adinekoen Nafarroako kirol lehiaketa ofizialak antolatzea edo koordinatzea.”

Zioak: Nafarroako nahiz beste edozein lurralde eremutako nahitaezko eskolaren adinekoentzako lehiaketa ofizialak antolatu, sailkatu eta baimentzeak kasuan kasuko federazioaren ardura izan behar du; horretarako lankidetzan arituko dira hezkuntza entitateekin. Ahalmen hori dagokion federazioaz beste entitate bati emateak bidea ematen du hartu beharreko erabakietan irizpide politiko hutsak kirol irizpide hertsia direnen gainetik jartzeko; hori, zalantzarik gabe, Nafarroako kirolarien interesen kalterako izanen litzateke.

38. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5.2 artikuluko i) letra kentzeko zuzenketa.

5.2 artikuluko i) letra kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Nafarroako selekzioak osatuko dituzten kirolariak haien kirol merezimenduen arabera izendatuko dira; horrenbestez, federazioa izanen da horretarako organo eskuduna.

39. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatiko f) letran “baimentzea” esan ordez “gainbegiratzea” esan behar du.

2. idatz-zatiko h) letran “koordinatzea” esan ordez “sustatzea” esan behar du.

2. idatz-zatiko i) letra kentzea

2. idatz-zatiko l) letran “kontrolatu” esan ordez “gainbegiratu” esan behar du.

2. idatz-zatiko ñ) letra honela geratuko da: “Kirola laguntzak eta dirulaguntzak emanaz sustatzea”.

Zioak: 2.f) Kirol Federazioak dira lehiaketa ofizialak antolatzeko baimena dutenak; baimen hori eratzeko direnean Gobernuak berak emandako baimenetik datorkie.

2.h) Unibertsitateak, berez, gauza dira jarduerak nahi dutenarekin eta nahi duten moduan antolatu eta koordinatzeko.

2.i) Federazioen eskumena da.

2.l) Goi mailako kirol jarduera federazioen menpe dago; hori kontrolatu nahi izatea haren eginkizunetan esku sartzea da.

2.ñ) Laguntzak beti partzialak eta zuhurtziaren araberrakoak dira; dirulaguntzek, berriz, munta osoa har dezakete eta objektiboak dira.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

40. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 6. artikulua ordez, ondoko testua jartzea:

6. artikulua.- Nafarroako udal eta kontzejuen eskumenak.

1.- Udal eta kontzejuen eskumenekoak dira toki-araubideko legediak esleitzen dizkien kirol-jarduera guztiak.

2.- Aurreko idatz-zatian aipaturikoez gain, Nafarroako udal eta kontzejuek honako eskumen hauek izanen dituzte:

a) Euren lurraldean kirol-jarduerari bultzada ematea, bereziki sustatuz hastapen-jarduerak nahiz prestakuntza eta jolasetarakoak arreta bereziko taldeen artean. Kirol-teknikariak kontratatu ahalko dira Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

b) Gizarte-ekimeneko eraikuntza edo horren sustapena, euren udal dermioan kirol-azpiegiturak hobetu eta kudeatzea eta horiek guztiz erabiltzea posible egitea, Foru Administrazioaren eskumenen kalterik gabe.

c) Kirola egiteko eta kirol-ekipamenduak kokatzeko lursailak erreserbatzeari eta eremuak kalifikatzeari buruzko hirigintza-erabakiak hartu eta horiek bete daitezzen zaindu.

d) Tokiko kirol-instalazio eta -lehiaketetan araudietako segurtasun- eta higiene-baldintzak betetzen direla kontrolatzea.

e) Beste ente publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan aritzea foru lege honetako helburuak betetzeko.

f) Esleitu edo delegatzen zaizkien bestelako eskumenak.

3.- Artikulu honetan aipaturiko eskumenak hobeto erabiltzeko, Nafarroako Gobernuak, bere langileen artetik, kiroletarako udal-koordinatzaileak eskuratu ahalko dizkie udalei edo udalen elkar-teei, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan.

4. artikulua.- Pertsona guztiek kirola eskura daukatela bermatzeko, udalerrak taldetan bildu ahalko dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko foru legearen babesean izenpeturiko lankidetzak akordio edo hitzarmenen bitartez”.

Zioak: udal eta kontzejuen eskumenak handitu eta zehaztea.

41. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

6. artikuluko d) letrari testua gehitzea proposatzen da. Hona letra horren testu berria:

“Foru Komunitateko Administrazioarekin lankidetzan aritzea eskola adineko umeen kirol jarduera eta guztientzako kirola bultzatzen.”

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

42. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letra aldatzea proposatzen da, ondoko testuarekin ordeztuz:

“b) Kirol gaitako proposamenak eta iradokizunak egitea Foru Komunitateko Administrazioari eta, kasu bada, haiek eskatuta, gainerako administrazio publikoei eta, oro har, Nafarroan kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten entitate edo pertsonen.”

Zioak: Artikulu bereko 1. idatz-zatian Nafarroako Kirol Kontseiluari aholku emateko organoa dela onartzen da.

43. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letrako testuaren ordezkari ondoko testua jarzea:

“b) Kirol gaitetako proposamenak eta iradokizunak egitea Foru Komunitateko Administrazioari eta, kasu bada, haiek eskatuta, gainerako administrazio publikoei eta, oro har, Nafarroan kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten entitate edo pertsonen.”

Zioak: Artikulu bereko 1. idatz-zatia Nafarroako Kirol Kontseiluari aholku emateko organoa dela onartzen da.

44. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letrako testuaren ordezkari ondoko testua jarzea:

“b) Kirol gaitetako proposamenak eta iradokizunak egitea Foru Komunitateko Administrazioari eta, kasu bada, haiek eskatuta, gainerako administrazio publikoei eta, oro har, Nafarroan kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten entitate edo pertsonen.”

Zioak: hobeki adierazten du Nafarroako Kirol Kontseiluak aholku emateko organo gisa daukan ahalmena.

45. ZUZENKETA**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letrako testuaren ordezkari ondoko testua jarzea:

“b) Kirol gaitetako proposamenak eta iradokizunak egitea Foru Komunitateko Administrazioari eta, kasu bada, haiek eskatuta, gainerako administrazio publikoei eta, oro har, Nafarroan kirola bultzatu eta garatzen esku hartzen duten entitate edo pertsonen.”

Zioak: Nafarroako Kirol Kontseilua aholku emateko organoa izatearekin koherentziaz jokatuko.

46. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letran “ez lotzailak” hitzak kentzea.

Zioak: ez du ematen zentzu handia duenik Gobernuari aholku emateko eta gizarteak Nafarroako kirola garatzen parte har dezan sorturiko organismo baten txostenak lekukotasuna emateko baizik balio ez izatea.

47. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa; hona testua:

“... Komunitateko Administrazioak kontsulta egin, aholku hartu eta elkarrekin erabakitzeke organo kolegiatua da...”

Zioak: Nafarroako Kirol Kontseilua, behin hauteskunde zuzen batzuen bidez haren osaketan aipatzen diren lau estamentuetan eratu denean, ezin da dekorazio hutsezko elementu bat izan: bere eskumenak gauzatzeko behar den erabakimena eduki behar du.

**8. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****48. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

8. artikuluko 3. idatz-zatiko testuaren ordezkari ondoko testua jarzea:

“Nafarroako Kirol Kontseiluak osaketa anitza izanen du, ukituriko sektore guztietako parte-hartzea jasoz. Honakoak izanen dira kontseilukideak, hasiera batez:

- Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko kide bat
 - Gizarte Ongizatearen Departamentuko kide bat
 - Osasun Departamentuko kide bat
 - Hezkuntza eta Kultura Departamentuko kide bat
 - Nafarroako Parlamentuko kide bat, Gizarte Gaietarako Batzordeko kideen artean izendatua
 - Toki entitateek hautaturiko bi kide
 - Unibertsitateek hautaturiko bi kide
 - Kirol federazioek hautaturiko bi kide
 - Nafarroako kirol entitateek hautaturiko bi kide
 - Nafarroako kirolariak ordeztzeko bi kide
- Zioak: legean finkaturik uztea Nafarroako Kirol Kontseiluaren hasierako osaketa.

49. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

5. idatz-zatia eta gero beste idatz-zati bat gehitzea. Hona haren testua:

“6. Nafarroako Kirol Kontseiluak bere kideen artean hautatuko ditu lehendakaria eta idazkaria, gehienez ere lau urteko epe baterako. Nahi izanez gero, kide gehienek hala erabakita, urtebeteko edo bi urteko txandakako sistema bat ezarriko da kargu horiek betetzeko.”

Zioak: erantzukizun handieneko karguak finkatuta uztea.

50. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

III. tituluko I. kapituluari, 9. artikulua baino lehen, bi artikulua gehitzeko zuzenketa.

“8. bis artikulua. Kirolaren definizioa.

Kiroltzat hartuko dira helburu gisa antolatutako edo beste nolabaiteko parte hartzearen bitartez egoera fisiko eta psikikoaren adierazpide edo hobekuntza, harreman sozialen garapena edo

maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea daukaten jarduera fisikoak.

8. ter artikulua. Kirol jardueraren definizioa.

1.- Kirol-jardueratzat hartuko da edozein pertsonak egindakoa, nahiz eta federatua ez egon edo lehiaketetan ez parte hartu.

2.- Nafarroako Administrazio Publikoek jolaserako eta aisialdirako kirola sustatuko dute, eta jarduera fisiko askea, norberaren kabuzkoa nahiz antolatua, erraztuko dute, guztiontzat bizi-kalitate hobea lortzeko.

3.- Kultura fisikoa eta kirola sustatzean, arreta bereziz tratatuko dira haurrak, gazteak, minusbaliatuak eta pertsona edadetuak.”

Zioak: lege proiektuak arautzen dituen kirola eta kirol jarduera zer diren ez da definitu.

**II. TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

51. ZUZENKETA

**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

II. tituluaren barruan, IV. kapitulua sortzea: Nafarroako Batzorde Olinpikoa.

Zioak: Nafarroako Batzorde Olinpikoa sortzeko proposamenak bi alde ditu: batetik, komite hori izanen da Nafarroan gogo-oinarri olinpikoak zabalduko dituen; bestetik, zuzenean ordezkatu ahal izanen ditu Nafarroako kirolarien interesak Nazioarteko Batzorde Olinpikoan.

52. ZUZENKETA

**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

II. tituluko IV. kapituluan, 8. bis artikulua sortzea proposatzen dugu. Hona testua:

“Nafarroako Batzorde Olinpikoa irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, nortasun juridikoa duena; haren xedea da mugimendu olinpikoa garatzea eta ideal olinpikoak Nafarroan zabaltzea, bai eta Nafarroako kirolariak Joko Olinpikoetarako prestatzea, haietan parte har dezaten eta Nafarroa ordezkatu dezaten.

Nafarroako Batzorde Olinpikoak Nafarroako kirolari olinpikoen eta Nafarroako federazioen

ordezkaria eta mintzakidea da Nazioarteko Batzorde Olinpikoan.

Nafarroako Batzorde Olinpikoak Nafarroako kirolariak Joko Olinpikoetan inskribatzea eta partehartzea antolatzen ditu, eta joko horietan ordezkaturiko jarduerak prestatzen eta sustatzen laguntzen du.

Modalitate olinpikoetako Nafarroako federazioek Nafarroako Batzorde Olinpikoan hartzen dute parte. Nafarroako Batzorde Olinpikoa modalitate olinpikoko Nafarroako federazio bakoitzeko ordezkari banak osatuko du.

Behin Nafarroako Batzorde Olinpikoa eratu denean, bere kideen artean lehendakaria hautatuko du: bera izanen da kide horiei funtzionamendurako estatutu batzuen proposamena aurkeztuko diena. Proposamen hori Nafarroako Batzorde Olinpikoko kide guztien gehiengo soilak onetsi beharko du.

Nafarroako Batzorde Olinpikoak Nafarroako kirolari olinpikoen Erregistroa sortu eta mantenduko du.

Zioak: Nafarroako Batzorde Olinpikoa sortzeko proposamenak bi alde ditu: batetik, komite hori izanen da Nafarroan ideal olinpikoak zabalduko dituena; bestetik, zuzenean ordezkatu ahal izanen ditu Nafarroako kirolarien interesak Nazioarteko Batzorde Olinpikoan.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

53. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 9. artikulua ordez ondokoa jar-tzea proposatzen dugu:

9. artikulua. Guzientzako kirol jarduera

1. Foru Administrazioak , toki-administrazioekin eta kirol-erakundeekin lankidetzan, kirola ohi-tura osasuntsu gisa sustatu eta kirol-jarduera aske eta norberaren kabuzkoa erraztuko du, aisialdia modu egokian erabiltzeko aukera ahalik gehienak pertsona-kopuru ahalik handienari eskainiz.

2.- Beraz, foru lege honen ondorioetarako, kirol-jarduera ez lehiatzaileztat hartuko da bizi-

kalitate eta gizarte-ongizate handiagoa lortzeko xede hutsez pertsonak banaka nahiz taldetan egituko.

3.- Foru Administrazioak , Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez, hala eskatzen dutenei osasun-kontrola egiten die, kirolariaren txartel indibiduala erabiliz; dena den, aisialdi-kirola egitearen ondorioen erantzukizuna kirola bere borondatez egiten duenarena izanen da soilik.

Zioak: hobeki zehaztuta geratzen da zer den guztientzako kirol jarduera, eta ondoko zuzenketen bitartez garatuko den osasun txartela aurreikusten da.

54. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa.

9. artikuluko 2. idatz-zatiari ondoko testua gehitzea proposatzen da:

“...ohitura osasungarriei bultza egitea izanen da, lehiaren gaineratik”

Zioak: lehiakortasun gehiegizkoa dago kirol-tan: guztientzako kirol jardueretan lehiak bigarren mailako tokia hartu behar du.

55. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

9. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzea proposatzen dugu.

“3. Nafarroako Gobernuak guztientzako kirol jarduera sustatuko du, eta jarduera fisiko libre eta bat-batekoa eta jarduera antolatua erraztuko ditu; halaber, prestakuntzako, sormeneko, gizarteak parte hartzeko, oneratzeko fisikoko eta mantentzeko jarduera ahalik eta gehien eskainiko ditu, Nafarroako herritar guztiek bizi-kalitate hobea izan dezaten.”

56. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

9. artikulua eta gero artikulua bat gehitzea proposatzen da.

Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak behar diren kirol jarduerak eta gorputz hezkuntza sustatuko ditu ezgaituentzat, eta arlo horretako adituen prestakuntza sustatuko du, haien bizi kalitatea hobetzeko.”

**10. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****57. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 10. artikuluko testuaren ordez ondoko testua proposatzen dugu:

10. artikulua. Eskola adineko kirol jarduera

1. Foru lege honen ondorioetarako, eskola-adineko kirol jardueratzat hartuko da ikastetxeek, guraso-elkarteek edo horiekin lankidetzan kirol-erakundeek antolaturiko kirol-ekintza, eskola-umeek eskola-orduetan edo ordu horiez kanpo egina, unibertsitate aurreko eskolatze-urteetan zehar.

2. Eskola-orduetan eginen den eskola-kirola askotarikoa izanen da lehentasunez, eta ez da lehiaketei soilik begira eginen; horrela, bermatu behar da eskola-ikasle guztiek kirol-mota ezberdina ezagutu eta egin ditzatela, euren borondate, gaitasun fisiko eta adinaren arabera. Bultzada berezia emanen zaie Foru Komunitateko kirol-mota berekiei.

Zioak: hobeki zehazten da zer den eskolako kirol jarduera eta aurreikusten da nortzuk antolatuko duten jarduera hori; halaber, ikastorduetan eginiko eskola jarduera aurreikusten da.

58. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hona artikulua testua:

“Eskola adineko kiroltzat hartuko da, foru lege honek agintzen duenari begira, haur eta gazteek ikastetxe guztietan, publiko nahiz pribatuetan, haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide heziketako maila guztietan, eskola orduz kanpo egiten duten kirol eiteko ariketa fisiko antolatua”

**11. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****59. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko emendakina

Proiektuko 11. artikulua ordez ondoko jarraia proposatzen dugu:

11. artikulua. Kirol jarduera eskola adinean sustatzeko programak.

1.- Eskola-orduz kanpoko eskola-kirola egiteko antolaketa-lanak klubek edo kirol-elkarteek, federazioek, toki-entitateek edo Foru Administrazioak egin ahalko dituzte, baita ikastetxeek edo guraso-elkarteek ere; betiere, bi horiekin lankidetzan egin beharko dira.

2.- Eskola-kirolari buruzko programak urtero taxutuko dira, eta horien jomuga izanen da eskola-hezkuntza integralaren osagarri izatea, nortasunaren garapen orekatua lortzea eta geroagoko adinetan kirola modu jarraian egitea posible egiten duten heziketa eta baldintza fisiko eta osasunekoak erdiestea.

3.- Eskola-kiroleko programek minusbalioetasunak dauzkaten eskola-ikasleak euren ikaskideekin integra daitezzen sustatu beharko dute. Hori posible ez denean, minusbalioetasunak dauzkatenentzat berariazko jarduerak izan beharko dituzte.

Zioak: Eskolako kirol jarduera eskola komunitateak antolatu behar du nagusiki.

60. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hona testuaren hasiera nola geratuko den:

“Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza Administrazioak, eskola adineko kirola bultzatzeko programak egin daitezzen sustatuko du, kirol administrazioa, toki...”

61. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

11. artikuluari hiru lerrokada gehitzea:

“Kirol jarduera sustatzeko, Foru Komunitateko hezkuntza Administrazioak behar den programa eginen du eta behar diren baliabide ekonomikoak erabiliko ditu.

Nafarroako hezkuntza Administrazioak, kirol administrazioarekin lan eginez, zainduko du ikastetxeetako gorputz hezkuntza eta kirol hezkuntza pertsonaren hezkuntza integralera eta osasun prebentibora bidera dadin.

Halaber, hezkuntza Administrazioak, osasun administrazioarekin lan eginez, zainduko du ikasleek kirol jardueretan erabiltzen dituzten kirol instalazioek eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

62. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa; hona:

“Ikastetxeetako kirol-klubak.

Ikastetxeek, zuzenean nahiz gurasoen elkarrekin lagunduta, kirol-klubak sortzen ahal dituzte ikastetxean, kirola sustatu eta garatzeko, horrela, eskola adineko umeen artean.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak behar diren baldintza ekonomiko eta giza-baldintzak jarriko ditu horretarako, bai eta erregelamenduz arautu ere funtzionamenduari buruzko bestelako alderdiak.

Ikastetxeetako kirol-klubak lehiaketa federatuetan parte hartzen ahal dute”

63. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

“11 bis artikulua.- Ikastetxeetako kirol-lehiaketak.

1.- Haur Hezkuntzak irauten duen epean, zero eta sei urte bitartean, zeharo debekatuta egonen dira ikastetxeetako bertakoak ez diren kirol-lehiaketa guztiak. Klubek, kirol-elkarteek, federazioek, toki-entitateek edo foru administrazioak ez dute, inondik ere, Haur Hezkuntzako adina duten kirolariak hartzen dituen kirol-lehiaketarik antolatuko.

2.- Lehen Hezkuntzak irauten duen epean, sei eta hamabi urte bitartean, urteko programetan sartutako kirol-lehiaketek Udaleko Kirol Eskola izena izan behar dute, eta, ahal dela, ikastetxeek edo guraso-elkarteek antolatuko dituzte, klub edo kirol-elkarteekin eta federazioekin lankidetzan. Guztiek izan behar dute toki-entitateen laguntza esplizitua, bai ikuspegi materialetik bai antolaketarenetik ere.

3.- Bigarren Hezkuntzak irauten duen epean, hamabi eta hemezortzi urte bitartean, urteko programetan sartutako kirol-lehiaketek Nafarroako Kirol Joko izena izan behar dute, eta, ahal dela, klub edo kirol-elkarteek eta federazioek antolatuko dituzte, ikastetxeekin edo guraso-elkarteekin lankidetzan. Guztiek izan behar dute Nafarroako Kirol Institutuaren laguntza esplizitua, bai ikuspegi materialetik bai antolaketarenetik ere.

4.- Aurrekoa gorabehera, eskola-kiroleko urteko programetan sartuta ez dauden kirol-lehiaketak antolatzea, eskola-ikasleek lehiaketa federatuetan parte hartzea eta hainbat kiroleko teknifikazio-unitateak garatzea sustatu ahalko ditu Nafarroako Gobernuak.”

Zioak: foru komunitatean egun jada badagoen eskola-kirola, zeinak hain emaitza onak lortzen baititu, legean sartu nahi da.

64. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

“Osasun-kontrola

Ikastetxeetan kirolean aritzen diren guztien osasun-kontrola arautuko du Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak.”

**12. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****65. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“12. artikulua. Babesa.

1.- Udaleko Kirol Eskoletako kirol-programen eta Nafarroako Kirol Jokoen antolaketan eta gauzatzean kirol-federazioek izanen dute laguntza teknikoaren eta lankidetzaren ardura.

2.- Udalek ikastetxe edo guraso-elkarteei eta federazioei lagunduko diete, nagusiki udaletako kirol-ekipamenduak erabiltzen utziz, Udaletako Kirol Eskoletako eskola-kiroleko programak behar bezala burutzeko.

3.- Nafarroako Kirol Institutua kirol-erakundeekin lankidetzan arituko da ikastetxeek Nafarroako Kirol Jokotako jardueretarako beharrezkoak diren erabilera anitzeko kirol-instalazioak eta materiala eduki ahal izan ditzaten.”

Zioak: foru komunitatean egun jada badagoen eskola-kirola, zeinak hain emaitza onak lortzen baititu, legean sartu nahi da.

66. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapituluko 12. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

Foru Komunitateko Administrazioak ez du onartuko 18 urtez beherako kirolarien prestakun-

tzaren aldera eskubideak edo beste edonolako diruordainak jasotzea.

Zioak: hori bat dator I tituluko 3. artikuluko e) idatz-zatiarekin.

**13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****67. ZUZENKETA****EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

III. kapituluko 13. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“...Nafarroako unibertsitate publikoek onetsi dituzten kirol programen arabera.”

Zioak: hori unibertsitate publiko eta pribatuen ezartzea da laguntza esplizitua ematea Nafarroako administrazioaren arduraz kanpo dagoen proiektu bati bai eta aipatu administrazioaren menpeko unibertsitate-entitateekiko ardurak alde batera uztea ere.

**14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****68. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikuluari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona:

“2. Unibertsitateen arloan eratzen diren kirol-klubek edo kirol-elkarteei eta kirol-taldeek, federazio mailako lehiaketa ofizialetan parte hartu nahi badute, Nafarroako Gobernuko Kirol Entitateen Erregistroan eman beharko dute izena, eta dagoen federazioan afiliatu beharko dira.”

Zioak: legean jaso beharrekoa da unibertsitateko klubek, nahi izanez gero, sistema federatuan sartzeko aukera.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

69. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua ordeztzeko eta lerrokada gehiago gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen da 2. lerrokada ordeztu eta lerroalde gehiago gehitzea proiektuaren 16. artikuluan. Hona:

“2 Errendimendu handiko kirolaritzat hartzeko irizpideak eta baldintzak kirolaren arloan eskuduna den departamentuak, kirol-federazioekin eta Nafarroako Kirol Kontseiluarekin batera, arauz ezartzen dituenak izanen dira.

- a) Irizpide teknikoak eta kirol arlokoak.
- b) Ordezkaritza eta promozio soziala Estatuko eta nazioarteko esparruetan islaturik.

3 bis. Nafarroako Gobernuak Nafarroako errendimendu handiko kirolariak sustatu, lagundu eta tutelatuko ditu.

6. Kirolari bat errendimendu handiko kirolaritzat kalifikatzeak honako onura hauek eskuratze-ko aukera ekarriko du berarekin:

- a) Bekak edo laguntzak (diruzkoak nahiz gauzazkoak), izaera hori duen bitartean.
- b) Ikasketen eta kirol-jardueraren arteko bateagarritasuna, ikastetxe berezietan arituz.
- c) Kirol-teknifikazioko programetan eta prestatze-plan berezietan sartzeko, kirol-federazioekin koordinatuz.
- d) Unibertsitatez kanpoko kirol-titulazioetarako ikasketetan sartzeko probetarako edo titulazio horietako ikastaroak baliokidetzeko baldintzak, erregelamenduz zehaztuko direnak, betetzeaz salbuetsita geratzea.
- e) Estatuko Administrazioak ezarriko dituen eta aplikagarri zaizkien bestelako onurak.

7. Nafarroako Gobernuak errendimendu handiko kirolean diharduten talde eta kirolariei dirulaguntzak emateko eta jarraipen eta ebaluazioa egiteko egoki diren jardunbideak garatuko ditu.

8. Errendimendu handiko kirolariei jarraipen hobia egiteko, Teknikazio Zentroa eratuko da, horren helburu nagusiak honako hauek izanik: errendimendu handiko kirolarientzat espezializa-

zio-programak garatzea eta kirol-talentuak detektatzeko programak garatzea.”

Oharra: “goi maila” alde batera utzi eta “errendimendu handi” erabili behar da, hori erabiltzen baita Europan, kirolei dagokienez.

Zioak: Errendimendu handiko kirolarientzat ezarritako irizpideak hobetu eta osatzea, Foru Komunitatean emaitza onekin gauzatzen ari diren jarduketak bateratuz.

17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

70. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua aldatzeko zuzenketa.

17. artikuluan hurrengoia kentzea proposatzen da: “hala bide denean Estatuko administrazioa lagun duela.”

Zioak: Goi mailako kirola sustatzeko, hainbat administrazioekin koordinatuta aritu behar da: estatukoarekin ez ezik, estatuaz gaindikoeekin, Europakoekin eta nazioartekoekin. Horregatik, idatz-zati horretan administrazio bakarra agertzea uler daiteke murriztailea dela eta beste administrazioentzako baztertzaila; ekintzak koordinatu ezina Europako administrazioekin adibidez, ondorio txarrak dakartza nahitaez Nafarroako goi mailako kirolarientzat.

71. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17.3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Hartuko dute” ordeztu eta “hartzen ahalko dute” jarri.

72. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

17.3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Hartuko dute” ordeztu eta “hartzen ahalko dute” jarri.

Zioak: xedea ez da Nafarroako administrazio publikoei “Nafarroako goi mailako” kalifikazio hori modu orokorrean ezarraraztea –zenbait lanpostutan ez du justifikaziorik izanen–, baizik eta administrazioei aukera hori ematea kirolarekin lotura duten lanpostuak betetzeko deialdietan baldin eta, lanpostuaren ezaugarri edo eginkizunak ikusita, egokia dela irizten badiote.

73. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17.3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Hartuko dute” ordeztu eta “hartzten ahalko dute” jarri.

Zioak: xedea ez da Nafarroako administrazio publikoei “Nafarroako goi mailako” kalifikazio hori modu orokorrean ezarraraztea –zenbait lanpostutan ez du justifikaziorik izanen–, baizik eta administrazioei aukera hori ematea kirolarekin lotura duten lanpostuak betetzeko deialdietan baldin eta, lanpostuaren ezaugarri edo eginkizunak ikusita, egokia dela irizten badiote.

74. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17.3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Hartuko dute” ordeztu eta “hartzten ahalko dute” jarri.

Zioak: xedea ez da Nafarroako administrazio publikoei “Nafarroako goi mailako” kalifikazio hori modu orokorrean ezarraraztea –zenbait lanpostutan ez du justifikaziorik izanen–, baizik eta administrazioei aukera hori ematea kirolarekin lotura duten lanpostuak betetzeko deialdietan baldin eta, lanpostuaren ezaugarri edo eginkizunak ikusita, egokia dela irizten badiote.

75. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA FORU PARLAMENTARIK AURKEZTUA

17.3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Hartuko dute” ordeztu eta “hartzten ahalko dute” jarri.

Zioak: ez dadila nahitaezkoa izan administrazio publikoentzako.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

76. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko proposamena.

18. artikulua aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak, Foru Komunitateko Administrazioa lagun, lurraldearen antolamendua, hirigintza eta ingurumena arautzeko eskumena baitu, eginahala egingen du informazio gaurkotua zabal dadin natur ingurunean kirol egiteko dauden debeku, murriztapen eta baldintzen gainean.”

Zioak: 1. idatz-zatia kentzea proposatzen da; izan ere, idatz-zati horrek ez du lege batek behar duen arau balioa: informazioa besterik ez da –beste lege batzuk bete behar direla besterik ez du gogorarazten–, eta, ondorioz, ezin da lege batean agertu Konstituzio Auzitegiak esana duenez.

77. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko proposamena.

18. artikulua aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak, Foru Komunitateko Administrazioa lagun, lurraldearen antolamendua, hirigintza eta ingurumena arautzeko eskumena baitu, eginahala egingen du informazio gaurkotua zabal dadin natur ingurunean kirol egiteko dauden debeku, murriztapen eta baldintzen gainean.”

Zioak: 1. idatz-zatia kentzea proposatzen da; izan ere, idatz-zati horrek ez du arau baliorik, informazioa besterik ez da, eta, ondorioz, ezin da lege batean agertu.

78. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

18. artikulua aldatzeko proposamena.

18. artikulua aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak, Foru Komunitateko Administrazioa lagun, lurraldearen antolamendua, hirigintza eta ingurumena arautzeko eskumena baitu, eginahala eginen du informazio gaurkotua zabal dadin natur ingurunean kirol egiteko dauden debeku, murriztapen eta baldintzen gainean.”

Zioak: 1. idatz-zatia kentzea proposatzen da; izan ere, idatz-zati horrek ez du lege batek behar duen arau balioa: informazioa besterik ez da –beste lege batzuk bete behar direla besterik ez du gogorarazten–, eta, ondorioz, Konstituzio Auzitegiaren doktrinarekin bat, ezin da lege batean agertu.

79. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

18.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Lerrokadaren amaieran hurrengoa gehitu:

“eta, halaber, horiek zorrozki bete daitezen behatuko du.”

**19. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****80. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

19. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 19. artikulua kendu eta, horren orde, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

“19. artikulua.- Kirol lehiaketan sailkapena

1. Lehiaketetako kirol-jarduera federatua nahiz jolas-kirolekoa izan daiteke:

a) Kirol-jarduera federatutzat hartuko da pertsona fisikoek banaka nahiz behar den bezala

legeztaturiko entitateetan integraturik egiten dena, kasuan kasuko federazioari atxikirik, haren zuzendaritza eta ganbegiraketapean eta lehiaketa eta jarduera ofizialen esparruan.

b) Jolas-kiroltzat hartuko da federazioen antolamenduaz kanpo egiten dena.

2. Foru lege honen ondorioetarako, honela sailkatzen dira lehiaketak et jarduerak:

a) Ofizialak eta ez ofizialak, jatorriaren arabera.

b) Udal, erkidego, estatu edo nazioarte mailakoak, egiten diren lurraldearen arabera.

3. Jarduerak eta kirol-lehiaketa ofizialak sailkatzeko irizpideak foru lege hau garatzeko xedapenetan ezarritakoak izanen dira.

4. Jarduera edo lehiaketa ofizialaren izena gorde da halakotzat sailkatuta daudenetarako, foru lege hau garatzeko xedapenetan ezarritakoari jarraituz.”

Zioak: proiektuak proposatzen duen sailkapena hobetzea.

**20. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****81. ZUZENKETA****EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikulua aldatzeko zuzenketa.

20. artikuluko 1. idatz-zatian hurrengoa kentzea proposatzen da :

“eta erregelamendu bidez ezartzen diren beste irizpide guztiak.”

Zioak: testu horrek alferrikako nahas-mahasa besterik ez dakar.

**21. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****82. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

“21 bis artikulua.- Lehiaketako bermeak.

1. Kirol-lehiaketa ofizial guztietan behar diren neurriak hartuko dira ondokak bermatzeko:

a) Kirol-praktikak berekin dakartzan arriskueta-tik babestea, bai osasunaren arloan eta bai erantzukizun zibilararen arloan ere.

b) Legezkoak ez diren praktikak kontrolatzea eta haien aurka borrokatzea, kirolarien errendimendua areagotzeko.

c) Disziplina-araubidea lege honetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzetan aplikatzeko behar diren bideak.

d) Parte-hartzaile aktibo nahiz pasiboen edozein bortxazko agerpeni aurrea hartzeko behar den segurtasuna.

e) Kirol-jardueran aritzeko kontratu bat eskatzea, erantzukizun zibila betetzeko, jarduerak hirugarrenentzat arriskurik sortzen duen guztietan.

2. Kirol-lehiaketa ez ofizial guztietan, gutxienez, behar diren neurriak hartuko dira aurreko idatz-zatiko a), d) eta e) letretan ezarritakoa bermatzeko.”

Zioak: Lehiaketen funtzionamendu zuzena bermatzeko zenbait neurri ezartzea.

22. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

83. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

22. artikulua aldatzeko zuzenketa.

22.2. idatz-zatia aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Nafarroako edo Euskal Herriko selekzioetarako deitzen bazaie, kirolari federatuak agertzera loturik daude erregelamendu bidez ezartzen den moduan; behar hori, betiere, aukeran nahiago duten selekzioarekin beteko dute.”

Zioak: suerta daiteke kirol lehiaketa batean batera gertatzea Euskal Herriko selekzio bat eta Nafarroakoa besterik ez den beste bat; gure ustez, Nafarroako Foru Komunitatean identitate eta sentimendu nazional bat baino gehiago dago, eta kirolariak aukera izan behar lukete aukeratzeko, norberaren nahien arabera, zer selekziotan lehiatu nahi duten.

84. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

22. artikulua aldatzeko zuzenketa.

22.3. idatz-zatia aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Nafarroako edo Euskal Herriko kirol erakunde federatuak beharturik daude beren kirolariak lagatzera Nafarroako edo Euskal Herriko selekzioak osatzeko, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.”

Zioak: suerta daiteke kirol lehiaketa batean batera gertatzea Euskal Herriko selekzio bat eta Nafarroakoa besterik ez den beste bat; gure ustez, Nafarroako Foru Komunitatean identitate eta sentimendu nazional bat baino gehiago dago, eta kirolariak aukera izan behar lukete aukeratzeko, norberaren nahien arabera, zer selekziotan lehiatu nahi duten.

85. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

22.3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. idatz-zatia aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Foru Komunitateko Administrazioak kirolariak bultzatuko ditu Nafarroako eta/edo Euskal Herriko selekzioetan parte hartzera”

Zioak: suerta daiteke kirol lehiaketa batean batera gertatzea Euskal Herriko selekzio bat eta Nafarroakoa besterik ez den beste bat; gure ustez, Nafarroako Foru Komunitatean identitate eta sentimendu nazional bat baino gehiago dago, eta kirolariak aukera izan behar lukete aukeratzeko, norberaren nahien arabera, zer selekziotan lehiatu nahi duten.

86. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. artikulua aldatzeko zuzenketa.

22. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da; hain zuzen ere, “lege sistema indardunaren barrenean, edonolako kirol jarduera edo lehiaketatan” zatia kendu, eta, horren ordez, hau jartzea: “Estatu eta nazioarteko lehiaketetan.”

2 eta 3. idatz-zatietan, proposatzen da “erregelamendu bidez ezartzen den moduan” zatia kentzea, eta, horren ordez, hau jartzea: “Federazioak deitzen badie.”

4. idatz-zatia ordeztu eta hau jartzea proposatzen da:

“4. Kasuan kasuko federazioen bitartez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako kirol-selektzioak sortzea sustatuko du, estatu- eta nazioarte-esparruko lehiaketetan parte har dezaten.”

Zioak: garrantzi handiagoa ematea federazioei, beraiek baitira selektzioei dei egin behar dietenak.

87. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. aldatzeko zuzenketa.

22. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da; hain zuzen ere, “...Nafarroako kirol erakundeetako kiroltaldeen ikur bereizgarriak” zatia- ren ondotik, “salbu eta kirol federazioenak,” zatia gehitzea.

Zioak: kirol federazioek Nafarroaren harmarria erabili ohi dute beren logotipo eta ikur bereizgarrietan.

88. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

22. artikuluari 7. idatz-zatia gehitzea proposatzen da. Hona:

“Nafarroako kirol-selektzioek estatu- eta nazioarte-esparruko lehiaketetan parte hartzea sustatuko dute Nafarroako federazioek.”

Zioak: ukalezina da Nafarroako Federazioak behartuta daudela Nafarroako kirolariak sustatu eta horiei aukera ematera estatu- eta nazioarte-esparruko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko; horrela, interesgarria da agindu hori legean jasotzea, Nafarroako federazioek ahaleginak egin ditzaten helburu horren bila.

25. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

89. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

25. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

25. artikuluko b) letrako 3. idatz-zatiaren amaieran, hau gehitzea:

“salbu eta arlo profesionalekoak badira.”

Zioak: pilota, txirrindularitza eta beste kirol profesional batzuek Nafarroako kirol instalazioak erabiltzen dituzte, eta hori debekatzeak ez du inongo zentzurik (Errioxako eta Aragoiko vueltak, Frantziako Tourra, etab.).

27. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

90. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

27. artikulua aldatzeko zuzenketa.

27. artikuluko a) letra aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

Kirol gaietako dirulaguntzak arautzeko oinarriek, betiere, irizpide objektiboak izanen dituzte ardatz, kontuan harturik baliabideen aprobetxamenduari buruzko plangintza orekatua, kokaleku geografikoa, biztanle-kopurua, jarduerak, parte hartzen dutenen kopurua eta toki entitateek dituzten antzeko inguruabarrak.

Zioak: dirulaguntzak emateko irizpideak gehiago zehaztea, diru-partiketa zuzenagoa izan dadin.

91. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

27. artikulua aldatzeko zuzenketa.

27. artikuluko a) letra aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“...eta Nafarroako unibertsitate publikoei...”

Zioak: aurkeztutako beste aldaketa zuzenketa batekin, 20garrenarekin hain zuzen, bat etortzeko.

92. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan, III. tituluko I. kapituluaren idazpurua aldatu eta horrela jartzea proposatzen da:

“De la actividad deportiva para todos y todas.”

Zioak: honelako lege batek ezin du baztertzaila izan emakumeekiko.

**IV. TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****93. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

IV. tituluko I. kapituluaren aurretik beste kapitulu bat gehitzeko zuzenketa.

Kapitulu bat gehitzea proposatzen da IV. tituluko I. kapituluaren aurretik; hona:

I. kapitulua.- Nafarroako kirol-erakundeak

A artikulua.- Kirol-erakundeen sailkapena.

Foru lege honen ondorioetarako, honela sailkatuko dira kirol-erakundeak: klubak edo kirol-elkarteak, kirol-taldeak, kirol-federazioak eta kirol-sozietate anonimoak.

B artikulua.- Erregistroan izena ematea.

1.- Nafarroako kirol-erakundeak foru lege honetan aurreikusitako ondorio guztietarako ofizialki aintzat hartuak izateko, beharrezkoa izanzen da horiek Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan izen ematea. Izen ematea beharrezkoa izanzen da, bereziki, Nafarroako administrazio publikoen edozein laguntza edo babes eskuratu ahal izateko.

2.- Kirol Erakundeen Erregistroari dagokionez, erregelamendu bidez arautuko dira atxikitzea, antolaketa, eginkizunak eta sarbide-eraentza.

C artikulua.- Kirol-erakundeen betebeharrak.

Kirol Erakundeen Erregistroan izen emandako kirol-erakundeek betebeharrak izanzen dituzte:

a) Kontabilitatea Kontabilitate Plan Orokorren arabera antolatua eta kirol-erakundeei egokitu edukitzea, eta horren bitartez behar bezala

adieraztea buruturiko eragiketa ekonomikoen emaitzak.

b) Erakundearen jardun normalak erakarrirako gastuak bertako kideen ekarpenekin eta urtero aurreikusitako dirusarrerara arruntekin ordaintzea.

c) Dirusarrerak, kirol-ekitaldietan lorturiko etekin eta sariak barne, erakunde-xedeak betetzeko osoki aplikatzea.

d) Etekinak ezin izanzen dira inola ere banatu erakundeko kideen artean.

e) Euren ondasunak besterendu edo horien gain kargak ezartzeko, dirua maileguan hartzeko eta zorra edo ondasunaren gaineko kuota-partea ordezkatzeko duten titulu transmitigarriak jaulki ahal izateko erregelamenduz zehaztuko diren betebeharrak betetzea.

f) Erakundea desegiten baldin bada, horren ondorioz eskuraturiko ondare garbia erakundea zegoen lurraldeko kolektiboaren kirol-helburuetarako erabili beharko da.

Zioak: kirol-erakundeentzako marko orokor bat ezartzea.

94. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

IV. tituluko I. eta II. kapituluak aldatzeko zuzenketa.

IV. tituluko I. eta II. kapitulua ordeztu eta, horien ordeztu, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

“II. kapitulua.- Klubak edo kirol-elkarteak.

A artikulua.- Kontzeptua.

Foru lege honen ondorioetarako, klub edo kirol-elkartetzat hartuko da nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dituen edozein edozein erakunde pribatu, baldin eta bere oinarritzko xedeak gorputz- eta kirol-jarduera sustatu, garatu eta egitea baldin badira, inolako irabazi-asmorik gabe.

B artikulua.- Eratzea.

1.- Klubak edo kirol-elkarteak halako moduan eratu beharko dira non dokumentu bidez agertu beharko den euren borondatea, xedea eta lortu nahi dituzten helburuak, bai eta irabazi-asmorik ez daukatela ere.

2.- Estatutuei dagokienez, ordezkagarritasun-printzipioari jarraitu beharko zaio, aplikatzekoak

diren kirol-arauen arabera. Barne-antolaketak demokratikoa beharko du izan, eta Batzar Nagusia, zeina botoa emateko eskubidea daukaten elkartekide guztiek osatuko baitute, izanen da gobernu-organo gorena.

3.- Batzar Nagusiak hautatu beharko du Zuzendaritza Batzordea, eta bere kargu guztiak hornitzeko bere kide guztien sufragio aske, berdin eta sekretura jo beharko da.

C artikulua.- Araubide juridikoa.

1.- Kluben edo kirol-elkarteen araubide juridikoa erregelamendu bidez ezarritako arauetara egokitu beharko zaie. Halaber, Nafarroako kirol-federazioek zeinek bere modalitatean ematen dituzten arauak ere aplikatzekoak izanen zaizkie.

2.- Betiere, klub en edo kirol-elkarteen estatuak Batzar Nagusiak onetsi eta kasuan kasuko kirol-administrazioak berretsi beharko ditu, Nafarroako Kirol Erakunde en Erregistroan izen eman ahal izateko.

3.- Klub en edo kirol-elkarteetako lehendakari en horien legezko ordezkari izanen dute, eta haien organoetako lehendakari gisa jardunen dute.

D artikulua.- Aurrekontuak.

Klub en edo kirol-elkarteek aurrekontu en ondare berekien araubideari lotuta beharko dute egon, irabazi-asmorik gabeko erakunde en printzipioei jarraituz.

E artikulua.- Federatzea.

1.- Klub en edo kirol-elkarteek federazio en esparruko lehiaketetan jardun ahal izateko, parte hartu nahi duteneko kirolei dagozkien federazioetan izen eman en edo horietara afiliatu beharko dute.

2.- Betiere, Nafarroako kirol-federazioek Nafarroako Kirol Erakunde en Erregistroan izen ematea galdatu beharko diete afiliaturiko klub en edo kirol-elkartei.

3.- Nafarroako Kirol Erakunde en Erregistroan izen emandako klub en edo kirol-elkarteek euren jardueran kirol-organo eskudunek sustaturiko kirol-programetara egokitzen badute, organo horien laguntza izanen dute.

4.- Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Kirol Erakunde en Erregistroan izen ematen duten klub en edo kirol-elkarte en berri erakunde eskudunei ematea.

F artikulua.- Izaera funtzionaleko entitateak.

Gorputz- en eta kirol-ekintzak sustatzeko xedea duten klub en edo kirol-elkarte gisa eratzen diren iza-

era funtzionaleko entitateak arautu beharko dira foru lege honek horrelako entitateentzat ezarritakoari jarraituz.

G artikulua.- Eskubideak aitortzea.

Legaren arabera eraturiko erakunde en edo elkarte pribatuen jardueran baldin badira gorputz- en eta kirol-ekintzak sustatu en eta egitea, inolako irabazi-asmorik gabe, erakunde en edo elkarte pribatu horien Nafarroako Kirol Erakunde en Erregistroan izen emandako klub en edo kirol-elkarteentzat ezarritako kirol-onura en eta eskubideak lortu ahalko dituzte, baldin en eta kasuan kasuko erakunde en kirol-atala erregistro horri atxiki baldin badiote, aplikatzekoak diren erregelamendu-arauek xedaturikoari jarraituz.

H artikulua.- Eskubideak aitortzea.

Irabazi-asmorik gabeko kirol-erakunde en edo elkarteek Nafarroako Kirol Erakunde en Erregistroan izen ematea eskatzen badute en eta ez badira ezein kirol-federazioetako kide, en edo horrelakoetara afiliaturik ez badaude, dagokion maila en edo esparruan kirol-ekintzak modu jarraian egiten dituztela frogatu beharko dute, ezarri den moduan, kirol-ondorioetarako erregistraturiko erakundetzat hartuak izan ahal izateko."

Zioak: klub en edo kirol-elkarteentzako marko orokor bat ezartzea, en eta izan dadila koherenteagoa errealitatearekiko en eta ez hain interbentzionista.

95. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IV. tituluko III. kapitulua aldatzeko zuzenketa.

IV. tituluko III. kapitulua kendu en eta, horren orde, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

"III. kapitulua.- Kirol Federazioak .

A artikulua.- Kontzeptua.

1.- Nafarroako kirol-federazioak interes publiko en eta sozialeko erakunde pribatuak dira, en eta, funtsean, Nafarroako lurraldean aintzat hartutako berriazko kirolak egiteko sustapen-, kudeaketa- en eta koordinazio-lanetan diharduten klub en edo kirol-elkarteek, kirol-taldeek, kirolari en, epaileek en eta teknikari en osatzen dituzte.

2.- Nafarroako kirol-federazioek nortasun juridiko en eta jarduteko gaitasun osoak izanen dituzte euren helburuak betetzeko.

B artikulua.- Eratzeko baimena.

1.- Nafarroako lurralde-esparruaren barnean kirol-modalitate bakoitzeko kirol-federazio bat baik ezin izanen da aintzat hartu.

2.- Nafarroako kirol-federazio gisa eratzeko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Aldez aurretik kirol-modalitate jakin bat ego-tea eta kirol hori egiteko ohitura izatea.

b) Erregelamendu bidez ezarriko den erakunde- edo sustatzaile-kopuru batek egindako proposamen bat.

C artikulua.- Estatuko eta nazioarteko Federazioak .

1.- Nafarroako kirol-federazioek, estatu-esparruko kirol-ekintzetan parte hartzeko, Espainiako federazioetako kide beharko dute izan, dagokien ordezkaritzaekin.

2.- Diziplina- eta lehiaketa-arloetan Espainiako eta nazioarteko kirol-federazioek dauzkaten arau eta erregelamenduak Nafarroako federazioei –eta, hala behar badu, euren klub eta erakunde afiliatuei– aplikatu ahalko zaizkie estatu- edo nazioarte-esparruko lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenean.

D artikulua.- Aintzat hartzea.

1.- Nafarroako kirol-federazio bat legez aintzat hartua izan dadin, beharrezkoa izanen da aldez aurretik bere estatutuak onetsita edukitzea, estatutu horiek Nafarroako Gobernu kirol-administrazioak berretsiak izatea eta Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea.

2. Nafarroako kirol-federazio bakoitzak bere kirolaren berriarazko beharrezkoen arabera egin ahalko du bere lurralde-antolaketa.

E artikulua.- Jardun demokratikoaren printzipioa.

1.- Nafarroako kirol-federazioak beren kideen ordezkaritza demokratikoko printzipioei jarraituz eratu beharko dira, eta beren estatutuek eta kirol-erregelamenduek arautuak izanen dira.

2.- Nafarroako federazioek zuzendu eta arautu egin beharko dituzte euren kirol-espezialitateei dagozkien jarduerak, Kirol Institutuarekin koordinatuz buruturikoak.

F artikulua.- Gobernu organoak.

1.- Nafarroako kirol-federazioetako gobernu-organok Batzar Nagusia, Zuzendaritza Batzordea eta Lehendakaria izanen dira.

2.- Kasuan kasuko federazioa osatzen duten erakundearen ordezkaritza proportzionala izanen da

Batzarra; alegia, honako hauena: klub edo kirol-elkarteena, kirol-taldeena, kirolari, epaile eta teknikariena.

3.- Kirol-federazioko lehendakaria sufragio aske, zuzen, berdin eta sekretuaren bitartez hautatuko du Batzarrak, bere kide guztien artetik; federazioaren legezko ordezkaritza izanen du, eta haren organoen lehendakari-lanetan jardunen du.

4.- Lehendakariak hautatuko du Zuzendaritza Batzordea.

G artikulua.- Araubide juridikoa.

1.- Nafarroako kirol-federazioen eraketa, araubide juridikoa, jarduerak eta funtzionamendua foru lege honetako xedapenetan eta aplikatzekoak diren erregelamendu-arauetan ezarritakoaren arabekoak izanen dira.

2.- Kirol-federazioek federazio-bideetatik gautatuko dute euren kide edo afiliatuen gaineko diziplina-boterea.

H artikulua.- Aurrekontu araubidea.

Nafarroako kirol-federazioek aurrekontu eta ondare berekien araubideari lotuta beharko dute egon, eta, urtero, euren kontabilitatearen eta egoera ekonomiko edo finantzarioaren gaineko kontu-ikuskapena edo kontabilitate-egiaztapena egin beharko dute, Nafarroako Gobernuaren kirol-administrazioaren erabakiei jarraituz.

I artikulua.- Foru Komunitateko administrazioarekiko harremanak.

Nafarroako kirol-federazioek Nafarroako- nahiz estatu- edo nazioarte-esparruko euren programen eta jardueren berri eman beharko diote Kirol Institutuari.

2.- Nafarroako Gobernu kirol-administrazioari dagokio, kirol-federazioekin hala adostuta, autonomia-erkidegoen artean eta nazioartean kirol-ekintzak egin eta antola daitezen sustatzea, aplikazio orokorreko arauak jarraituz.”

Zioak: kirol-federazioentzako marko orokor bat ezartzea, eta izan dadila koherenteagoa errealitatearekiko eta ez hain interbertzionista.

96. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IV. tituluko IV. kapitulua aldatzeko zuzenketa.

IV. tituluko IV. kapitulua kendu eta, horren ordez, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

“IV. kapitulua.- Kirol taldeak.

A artikulua.- Kontzeptua.

Foru lege honen ondorioetarako, kirol-taldetzat joko da lanbide-, lan-, hezkuntza- edo geografia-uztardura bereziz loturiko pertsona fisiko edo juridiko edo fisiko eta juridiko osaturiko edozein talde edo erakunde pribatu, inolako irabazi-asmorik gabe kirol anizteta ekintzak garatu, sustatu eta egiteko xedea duena.

B artikulua.- Araubide juridikoa.

1.- Kirol-taldeak eratzean eta euren estatutuak taxutzean ordezkapen demokratikoko printzipioei jarraitu beharko zaie.

2.- Kirol-taldeen Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan izen eman beharko dute. Federazioen esparruko lehiaketetan jardun nahi dutenek parte hartu nahi duten kirolaren federazioan afiliatu beharko dute.

C artikulua.- Aintzat hartzea.

Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan izen emandako kirol-elkarteek euren ekintzak kirol-organo eskudunek onetsi eta gomendatutako kirol-programetara egokitzen baldin badituzte, organo horien laguntza izanen dute.

D artikulua.- Eskolako kirol taldea.

1.- Eskolako kirol taldeak dira pertsona fisiko edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, osaturikoak, eta helburu soil gisa eskola-adinekoen kirol-ekintzak dituztenak.

2.- Eskolako kirol taldeek nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanen dituzte, euren eginkizunak betetzeko.

3.- Bai lurralde-esparrua bai eraketari, osaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko arauak erregelamendu bidez ezarriko dira, eta ordezkapen- eta demokrazia-printzipioen arabera beharko dute izan; beti ere, jarduera kasuan kasuko kirolari dagozkion kirol-federazioekin koordinatuko dute.

4.- Oro har, foru lege honek klub edo kirol-elkarteentzat ezarritako eraketa-, antolaketa- eta funtzionamendu-araubidea aplikatuko zaie, honako berezitasun hauekin:

a) Xedeak eskola-adineko kirol-ekintzekin lotura izan beharko du.

b) Lurralde-esparruak udalerrri bat edo batzuk hartu ahalko ditu.

c) Ikastetxeek, ikasleen guraso-elkarteek, udal-ek, kirol-federazioek, klub edo kirol-elkarteek eta

bestelako talde interesdunek haiek osatu ahalko dituzte.”

Zioak: kirol taldeentzako marko orokor bat ezartzea, eta izan dadila koherenteagoa errealitatearekiko eta ez hain interbentzionista.

97. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IV. tituluko V. kapitulua aldatzeko zuzenketa.

IV. tituluko V. kapitulua kendu eta, horren ordez, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

“V. kapitulua.- Kirol sozietate anonimoak eta liga profesionalak.

A artikulua.- Kirol sozietate anonimoak.

1.- Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legeari jarraituz eraturiko eta sozietate-helbidea Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean daukaten kirol-sozietate anonimoek Foru Lege honetatik eta bera garatzeko arauetatik eratorritako berriazko onurak izan ahalko dituzte, Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu ondoren.

2.- Sozietate-helbidea Foru Komunitatean izanik profesionalak ez diren lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol-sozietate anonimoak kirol-klub gisa joko dira Nafarroako kirol-federazioetako organoetan parte hartzeari dagokionez.

3.- Erregelamendu bidez zehaztuko dira atxikitze-prozedura eta hori burutu ahal izateko behar den dokumentazioa.

B artikulua.- Liga profesionalak.

1.- Modalitate bereko kirol-klubek liga profesionalak eratu ahalko dituzte; liga horietan parte hartzen duten klub guztiek osatuko dituzte, eksklusiboki eta nahitaez, aipaturiko ligak. Foru Administrazioak liga horietarako baimena eman beharko du.

2.- Liga profesional bat osatzen duten kirol-klubek kirol-sozietate anonimoaren forma juridikoa hartu beharko dute, indarra duen legediak ezartzen duen moduan.

3.- Liga profesionalek nortasun juridiko berekia izanen dute, eta autonomia izanen dute euren barne antolaketari eta funtzionamenduari dagokionez; halaber, kasuan kasuko Nafarroako kirol-federazioarekin hitzarmenak sinatu ahalko dituzte. Euren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

4.- Liga profesionalen eraketa, estatutuak eta erregelamenduak foru Administrazioak onetsiko ditu.

C artikulua.- Liga profesionalen eskumenak.

Liga profesionalek eskumen hauek izanen dituzte:

a) Euren lehiaketa berekiak antolatzea.

b) Euren bazkideei dagokienez kontrol-, zain-tza- eta ikuskapen- eginkizunak betetzea, bai eta Lege honek nahiz bere garapen-arauek, estatu-tuek eta erregelamenduek ezarritakoak ere.

c) Diziplina-boterea lege honek eta bere garapen-arauek ezarritako moduan erabiltzea.”

Zioak: hobeki zehaztea kirol sozietate anoni-moen eta liga profesionalen marko orokorra.

98. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IV. tituluari beste kapitulu bat gehitzeko zuzen-keta.

IV. tituluari beste kapitulu bat gehitzea propo-satzen da; VIIgarrena izanen da. Hona:

“VII. kapitulu.- Kirol erakundeei laguntzea.

A artikulua.- Kirol erakundeentzako laguntzak.

Foru Administrazioak kirol-erakundeei dirula-guntzak emateko sistemak antolatu ahalko ditu, eta laguntza horiek eman ziren helbururako bene-tan aplikatzen direla ziurtatzeko kontrol-prozedu-rak ezarriko ditu.

B artikulua.- Laguntzak jasotzeko baldintzak.

Kapitulu honetan aipaturiko laguntzak eta diru-laguntzak ematerakoan kontuan hartuko dira laguntzak jasoko dituztenek edo eskatu dituztenek lorturiko kirol-kalifikazioa, parte hartu duteneko edo parte hartzeko asmoa duten lehiaketa zein motatakoa den, parte-hartzaileen kopurua, nahitaez erabili beharreko kirol-materiala, antolaketara-ko behar diren pertsonak eta erregelamendu-arauetan zehazten diren bestelako gauza guztiak.”

Zioak: kirol erakundeentzako laguntzak direla-eta, marko orokor bat ezartzea.

43. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

99. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

43.2.c artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Nahitaezko eskolaren adina” aldatu eta “esko-lako adina” jarri.

100. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

43. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatiko d) letra aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Erabakitzea zein teknikarik eta kirolarik osatu-ko dituzten bere modalitateko Nafarroako eta/edo Euskal Herriko kirol selekzioak, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.”

Zioak: Nafarroako Foru Komunitatean identita-te eta sentimendu nazional bat baino gehiago dago, eta badira Euskal Herri osoa hartzen duten Federazioak eta kirol-lehiaketak; horrenbestez, zentzuzkoa da, gure irudiko, federazio bakoitzari hautatzeko aukera uztea, eta zentzuzkoa, baita ere, kirolari bakoitzak aukera izatea zer selekzio-tan parte hartu nahi duen erabakitzeko.

101. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

43. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatiko e) letra aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Erabakitzea bere modalitateko Nafarroako eta/edo Euskal Herriko kirol selekzioek kirol jar-duera edo lehiaketetan parte hartu behar duten ala ez.”

Zioak: Nafarroako Foru Komunitatean identita-te eta sentimendu nazional bat baino gehiago dago, eta badira Euskal Herri osoa hartzen duten Federazioak eta kirol-lehiaketak; horrenbestez, zentzuzkoa da, gure irudiko, federazio bakoitzari hautatzeko aukera uztea, eta zentzuzkoa, baita

ere, kirolari bakoitzak aukera izatea zer selekzio-tan parte hartu nahi duen erabakitzeko.

102. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

43. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatiko e) letran, "erabakitzea" kendu eta "izendatzea" jartzea proposatzen da.

Zioak: 5.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

103. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

43. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

43. artikuluko 2. idatz-zatiari letra bat gehitzea, j) letra hain zuzen; hona:

"j) Federazioetako hauteskondeak kontrolatzea; betiere, bermatuta izanen dira publikotasun, gardentasun eta demokraziaren printzipioak, eta, horretarako, kide guztiei baldintza beretan parte hartzeko aukera emanen zaie, eta proportzionaltasunaren irizpidea eta gutxiengoarekiko errespetuaren irizpidea ere jarraituko dira."

Zioak: federazioetako hauteskondeen barne demokrazia bermatzea, sarritan jarri izan baita hori zalantzan.

104. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

43. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

43. artikuluko 2. idatz-zatiari letra bat gehitzea; hona:

"Sexuen arteko berdintasuna sustatzea, Nafarroako Gobernuarekin bat, sexueta batek besteak baino ordezkaritza gutxiago duen kiroletan."

105. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

43. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

43. artikuluko 2. idatz-zatiari letra bat gehitzea; hona:

"Nafarroako selekzioak osatzen dituzten kirolariak izendatzea."

45. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

106. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

45. artikulua aldatzeko zuzenketa.

45. artikuluko g) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: Letra hori legean jartzeak ez du inongo zentzurik: kirolari nafarrak sustatzearen ideia aurkakoa da, eta ideia hori behin eta berriz islatzen da foru lege proiektuan.

47. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

107. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

47. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

47. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzea proposatzen da, 6garrena hain zuzen; hona:

"Nafarroako federazioek, batzar orokorrean gehiengoaren bidez erabakita, maila handiagoko kirol federaziotan sar daitezke."

Zioak: Nazioarteko kirol zuzenbidean, kirol elkartei dagokienez, nagusi dira autoantolatze ahalmena eta libreki atxikitzearen printzipioa. Hori horrela, Nafarroako federazioei ere aitortu behar zaie maila handiagoko kirol federazioetan sartzeko ahalmena; horren xedea da foru lege proiektu honetan ezarritako helburuak betetzea.

48. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

108. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

48. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa; 2garrena izanen da. Hona:

“Kirolari etorkinei, legeztatuak nahiz `legez kanpo´ daudenei, lizentzia lortzeko eskatuko zaien gauza bakarra izanen da Nafarroako edozein herritan eskolatuta edo errolatuta egotea, eta duten adinaren ziurtagiri bat, udal horrek edo eskolatuta dagoen ikastetxeak emana.”

Zioak: sarri askotan, legez kanpo zeuden etorkinek ezin izaten zuten federatuta egon; horrela, tramite guztiak erraztu egiten dira.

49. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

109. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

49. artikulua aldatzeko zuzenketa.

49. artikuluko 2. idatz-zatian gehiketa bat egin eta horrela jartzea proposatzen da:

“2. Nafarroako kirol federazioek iragarri behar dute federazioko estatutuak onetsi edo aldatzeko erabakia, gutxienez Foru Komunitateko bi egunkaritan, eta nafarren eleaniztasuna kontuan hartuta.”

Zioak: beharrezko publikotasuna bermatzea eta Nafarroako hizkuntz errealitatea aintzat hartzea.

50. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

110. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

50. artikulua aldatzeko zuzenketa.

50. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta honela jartzea proposatzen da:

“Kirol modalitate bakoitzeko federazio nafarra izanen da Nafarroako kirol federatuaren ordezkari bakarra Estatuan nahiz nazioartean, salbu eta gorputzezko, gogozko, zentzumenezko edo askotariko minusbaliotasuna dutenen kirol jardueraren kasuan.”

Zioak: aldaketa honen oinarria da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 44.14 artikulua Nafarroari aitortzen dion eskumen osoa.

111. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

50. artikulua aldatzeko zuzenketa.

50. artikuluko 2. idatz-zatian hurrengo zatiak kentzeko zuzenketa:

“autonomi elkarteen arteko” eta “aurrez Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren baimena eskuraturik eta bestelako baimenak eskatu beharra galarazi gabe.”

Zioak: lege proiektua, dagoenean, interbenzionistegia da, eta, horrenbestez, kirol federazio bakoitzak beharrezkoa duen autonomiaren oso mugatzailea; 50. artikuluko 2. idatz-zatiak bidea eman dezake federazioen borondateari mugak jartzeko, eta interes politikoek lehentasuna izan dezaten kirolezkoen gainetik.

112. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

50. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Batetik, hurrengo zatia kentzea:

“aurrez Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren baimena eskuraturik eta bestelako baimenak eskatu beharra galarazi gabe.”

Bestetik, paragrafo bat gehitzea; hau:

“Orobat, hala erabakitzen duten Federazioak elkartu egin ahalko dira beste lurralde batzuetako kirol federazioekin, lege honekin bat etorriz gero”

Zioak: Nafarroako Foru Komunitatean identitate eta sentimendu nazional bat baino gehiago dago, eta badira Euskal Herri osoa hartzen duten Federazioak eta kirol-lehiaketak; horrenbestez, zentzuzkoa da, gure irudiko, federazio bakoitzari hautatzeko aukera uztea.

IV. TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

113. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

IV. tituluaren barrenean beste kapitulu bat gehitzeko zuzenketa.

IV. tituluaren barrenean III bis kapitulua sortzea proposatzen da: "Nafarroako Kirol Federazioen Batasuna".

Zioak: Gomendagarria da Nafarroako federazioen interes komunak batuko dituen berariazko ente bat sortzea; hobekiago eginen diete aurre, horrela, denek dituzten beharrei.

114. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

IV. tituluko III. bis kapituluan 52. bis artikulua sortzea proposatzen da; hona:

1.- Nafarroako Kirol Federazioen Batasuna nortasun juridikodun kirol erakunde bat da, zeinak xede baitu kirola hobetu eta garatzeko oinarri komunak bilatzea, federazioen kirol helburuak aldeztu eta horiek hobekiago betetzen laguntzea, eta ezartzea, federazioentzako, administrazio egitura komunak edo laguntza teknikorako egitura komunak. Orobat, eta dituen eskumenen esparruan, Nafarroako kirol-administrazioarentzako aholkuak ere emanen ditu; hori ez da eragozpen izanen, hala ere, federazio bakoitzak berariazko aholkuak eman ahal izan ditzan.

2.- Nafarroako Kirol Federazioen Batasunak, Estatu eta nazioarteko lehiaketa ofizialetan Nafarroako selekzioen parte hartzea sustatzeko, behar den laguntza eta babesia emanen die Nafarroako federazioei.

Zioak: Gomendagarria da Nafarroako federazioen interes komunak batuko dituen berariazko ente bat sortzea; hobekiago eginen diete aurre, horrela, denek dituzten beharrei.

60. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

115. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN**
ELKARGUNEA**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

60. artikulua aldatzeko zuzenketa.

60. artikulua kendu eta, horren ordez, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

"60. artikulua.- Kirol jarduera orokorraren ondoriozko osasun laguntza.

1. Kirol jarduera orokorraren ondoriozko osasun laguntzari dagokionez, kirolari dira kirolen bat egiten duten pertsonak, nahiz eta federatuta egon ez eta kirol-lehiaketetan parte hartu ez.

2. Botere publikoek eta entitate pribatuek sustatu eginen dute kirolari guztiak foru lege honetan arautzen diren federazio-egituretan sartzera, laguntza eta babesik onena ematearren."

Zioak: kirol arloko osasun laguntza denentzako izatea.

116. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

60. artikulua aldatzeko zuzenketa.

60. artikuluari hurrengo zatia kentzea:

"eta bai erakunde pribatuek emandako osasun laguntzako aseguru orokorren prestazioa ere, kirol jarduera federaturako berariaz aurreikusten den aseguru araubidea ezertan galarazi gabe."

61. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

117. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA**PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

61. artikulua aldatzeko zuzenketa.

61. artikuluari bigarren lerrokada kentzea.

118. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

61. artikulua aldatzeko zuzenketa.

61. artikulua kendu eta, horren orde, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

“61. artikulua.- Laguntzarako neurriak.

Kirolariei osasun laguntza eta babes egokia ematea sustatuko du Nafarroako Gobernuak; horretarako, lege honetan bertan bildutako beste-lako neurriez gain, ondoko neurriak ezarriko dira:

a) Haurtzaroan hasita erraztea kirol-prestakuntza; hartara, gorputz-hezkuntza derrigorrezkoa izanen da arlo horretan aplikatzeko den legeriak ezarritako hezkuntza-mailetan.

b) Erregelamendu bidez eskatzen den titulazioa izan dezaten eskatzea kirol-teknikariei zein kirol-instalazioetako arduradunei.

c) Kirol-instalazioetako osasun- eta higiene-baldintzak arautzea.

d) Kirola egiteko gaitasun fisikoa kontrolatzen eta kirolariei osasun-maila gorenari eusten laguntzen duten neurriak har ditzaten eskatzea kirol-jarduerak sustatzen dituzten entitateei eta arduradunei, osasun-arloan indarra duen legeriarekin bat.

e) Medikuen eta osasun-arloko langileen prestakuntza eta kirol-medikuntzako laguntza-unitate espezializatuen garapena bultzatzea.

f) Osasun kontrol eta laguntza bermatzea kirolari federatuei, sektore publikoak egiten duen mediku-asegurua eginez, edo bestela, zerbitzu horiek beteko dituen edozein aseguru pribatu; betiere, derrigorrezkoa izanen da aseguru.

g) Banakako txartela ematea, hala lehen kirol-lizentziarekin nola kirolariak berak eskatuta, kirol-eta osasun-arloko informazioarekin. Haren edukia erregelamendu bidez ezarriko da.

h) Kirol-jarduerako istripuei aurrea hartzeko nahiz osasunari mesede egiteko ikuskatze- eta kontrol-neurriak zein kirol-izaerakoak hartzea, kirol-federazioekin lankidetzan, kirol-mota bakoitzaren ezaugarriak eta izaera kontuan hartuta.”

Zioak: kirol laguntzarako neurri zehatz batzuk ezartzea.

119. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

62. artikulua aldatzeko zuzenketa.

62. artikuluko 1. idatz-zatia kendu eta, horren orde, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

“1. Foru Komunitateko administrazioa, kiroleko dopajea galarazi, kontrolatu eta erreprimitzeko neurriak hartu eta aplikatzeko, lankidetzan arituko da Estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuekin.”

Zioak: legearen ulergarritasuna hobetzea.

120. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

61. artikulua aldatzeko zuzenketa.

61. artikuluko 1 idatz-zatiko bigarren lerrokadaren orde hau jartzea proposatzen da:

“Nafarroako Foru Komunitateak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez, kirol jardunaren ondoriozko osasun laguntza bermatuko du. Horretarako, zerbitzu berriak sortuko ditu, errehabilitaziokoak, fisioterapiakoak bai eta kirolarien behar bereziei aurre egiteko behar diren guztiak.”

Zioak: bai gizabanakoarentzat bai kolektibitatearentzat, kirola egiteak balioak ditu eta onurak dakartza –2. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatian daude ezarrita–; horiekin bat, Nafarroako Gobernuak, bere esku duen aurrekontu-plangintza erabiliz, kirola egiteko beharrezko den finantziarioa bermatu behar du.

121. ZUZENKETA**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

61. artikulua aldatzeko zuzenketa.

61. artikuluko 2. idatz-zatiaren orde honako hau proposatzen da:

“2. Jendaurreko kirol ikuskizun eta jardueren arriskuen berezitasuna gogoan, dela kirol ikuskizun edo jardueraren izaera eta ezaugarriengatik, dela kirol horrek gertaleku duen ingurunearen ezaugarriengatik, dela kirolarien edo ikusleen kopurua edo adinagatik edo antzeko arrazoi bereziengatik, antolatzaileei erregelamendu bidez eza-

rri ahal izanen zaie erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzeko betebeharra, arlo horretako bere arriskuak, eta hala bide denean kirolarienak, aseguratzeko”.

Zioak: Asmoa argiagoa izatea, Udal eta Kontzejuen Federazioaren iradokizuna jarraikiz.

122. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

61. artikulua 2. idatz-zatia ordeztzeko zuzenketa.

61. artikulua 2. idatz-zatiaren edukia honako honekin ordeztea proposatzen da:

“ Jendaurreko kirol ikuskizun eta jardueren arriskuen berezitasuna gogoan, dela kirol ikuskizun edo jardueraren izaera eta ezaugarriengatik, dela kirol horrek gertaleku duen ingurunearen ezaugarriengatik, dela kirolarien edo ikusleen kopurua edo adinagatik edo antzeko arrazoi bereziengatik, antolatzaileei erregelamendu bidez ezarri ahal izanen zaie erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzeko betebeharra, arlo horretako bere arriskuak, eta hala bide denean kirolarienak, aseguratzeko”.

Zioak: Testuak manuaren asmoa argitu eta hobetzea du helburu, hau da, kirol ikuskizun eta jardueren antolatzaileei zenbait kasutan horietatik heldu den erantzukizun zibilerako aseguru bat kontrata dezaten erregelamendu bidez eskatzeko aukera ematea.

123. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

61.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Lehendabiziko lerrokadan “osasun laguntza” kentzea proposatzen da.

124. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

61. artikulua gehiketa egiteko zuzenketa.

61.2 artikulua lerrokada bat gehitzea:

“Foru Komunitateko Administrazioak finantzatu ahal izanen ditu erantzukizun zibileko aseguru horiek arazo ekonomikoak, frogatu ahal direnak, baldin badaude eta erregelamenduz ezarriko diren beste baldintza batzuk betetzen badira.”

V. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

125. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

V. tituluaren II. kapituluak aldatzeko zuzenketa.

V. tituluaren II. kapituluak aldatzea proposatzen da, honelaxe:

– Kapituluaren izena aldatzea, hauxe izan dadin:

II. kapituluak. Dopajearen kontrako prebentzioa

– Proiektuaren 62. artikulua bere horretan uztea.

– Proiektuaren 63. artikulua honekin ordeztzea:

“63. artikulua. Kirol dopajerako sustantzia eta metodoen zerrenda.

Nazioarteko itunetan arlo hori dela-eta xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak kirolarien gaitasun fisikoa modu artifizial batez garatzea eta lehiaketan emaitzak aldatzea xede duten gai eta metodo debekatu zerrenda egin, eguneratu eta argitaratuko du.”

Proiektuaren 64. artikulua bere horretan uztea.

Proiektuaren 65. artikulutik “eta bai handik kanpora ere” esaldia kentzea.

65. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzea, testu honekin:

65 bis artikulua - Kontrolak eta analisiak

1. Kirol-arloko eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentua arduratuko da dopajea kontrolatzeko prozesuen normalizazioaz. Horretarako, Gobernuak erregelamendu bat onetsiko du, eta bertan ondokoak arautuko dira gutxienez ere:

- a) laginak hartzea
- b) laginak jaso eta bidaltzeko prozesuak
- c) analisiak eta emaitzak jakinaraztea
- d) laginak aztertzeko laborategiak

e) dopajea kontrolatzean esku hartu dutenen eskubide eta betebeharrak.

2. Dopaje-kontroletan hartutako laginen analisiak kirol-arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuak modu ofizialean onartutako laborategietan egin beharko dira. Kirolari batek eskatuta egindako kontraanalisia ezin izanen dira egin lehen analisia egin den laborategian.

Zioak: Kapituluak osatu eta hobetzea.

126. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

V. tituluko III. kapituluaren izena aldatzeko zuzenketa.

Honekin ordeztea: "Nafarroako Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa"

127. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

66 eta 79. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Bi artikulua horien ordeztu 66. artikulua, bakarra, izatea:

Egitura organikoa

1. Nafarroako Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa Nafarroako Gobernuaren administrazio unitatea da.

2. Erregelamendu bidez ezarriko da zer egitura organiko, zer eginkizun eta zer jardun-araubide izanen dituen.

3. Foru Komunitateko Administrazioak zentrorako egitura juridikoa ezarriko du.

128. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

67 eta 80. artikulua kentzeko zuzenketa.

Bi arauak osorik kentzea.

69. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

129. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

69. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hobekuntza teknikoa egitea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iradokizunari jarraikiz.

130. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Letra bat kentzeko zuzenketa.

69. artikulua 1. idatz-zatiaren a) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: Interpretazio subjektiboegia egiteko bide ematen du eta horrek zentsura antidemokratikoa ekar lezake.

131. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

69. artikulua aldatzeko zuzenketa.

69. artikulua 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da:

1. idatz-zatiaren d) letran "kirolarien eta kirolzaleen segurtasuna eta babesa bultzatzeko" esaldia kendu eta 1. idatz-zatiaren sarrerako lerrokadaren hasieran "kirolarien eta kirolzaleen segurtasuna eta babesa bultzatzeko" esaldia gehitzea.

Zioak: Kirol federazioek Nafarroaren armarrria erabili ohi dute beren logotipo eta ikurretan.

70. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

132. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

70. artikulua aldatzeko zuzenketa.

70. artikulua 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da:

1. idatz-zatiaren bigarren lerrokada kentzea.

2. idatz-zatian, "gutxienez zer estaldura izanen duten" esaldiaren ordez "erantzukizun zibileko zein estaldura sistemak izanen dituzten".

Zioak: Erantzukizun zibilaren, kalte eta galeren gai garrantzitsu honetan ez da salbuespen bat bera ere gertatu behar.

133. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Idatz-zati bat kentzeko zuzenketa.

70. artikuluko 4. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Hobekuntza teknikoa egitea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iradokizunari jarraikiz.

134. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

70. artikulua aldatzeko zuzenketa.

70.3 artikuluko c) letran dagoen testuaren ordez hauxe proposatzen da:

"c)Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren gaineko araudiak ezarritako debekuak eta mugak"

Zioak: Hobekuntza teknikoa egitea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iradokizunari jarraikiz.

71. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

135. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

71. artikulua kentzeko zuzenketa.

Proiektuaren 71. artikulua kentzea proposatzen da.

Zioak: Hobekuntza teknikoa egitea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iradokizunari jarraikiz.

72. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

136. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

72. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testuaren ordez hauxe proposatzen da:

"72. artikulua.- Kirol instalazioei buruzko plan zuzentzaileak.

1.- Nafarroako Foru Komunitatean kirol-instalazioen eta - ekipamenduen plangintza eta programazioa egiteko, Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeari eta Nafarroako Kirol Kontseiluari kontsulta egin ondoren, kirol instalazioei buruzko plan zuzentzailea eta horren aldaketak egin eta Nafarroako Parlamentura igorriko ditu; horien indarraldia lau urtekoa izanen da.

2.- Nafarroako toki-administrazioek aurrekoa bete dadin zainduko dute, eta behar diren hirigintza-xedapenak sartuko dituzte euren planeamendu-tresnetan.

3.- Instalazioei buruzko planaren xede izanen da planaren indarraldian zehar egin beharreko oinarriko azpiegitura –funts publikoekin finantzatua– zehaztea; horretarako, populazio-moduluen, erabiltzaile-kopuruaren, egoeraren, klimaren eta dauden instalazioen arabera, oinarriko azpiegituraren ezaugarri teknikoak eta kokapen geografikoa ezarriko ditu.

4.- Halaber, finantzaketa-programa ezarriko du, zeresana daukaten erakunde publikoek exekuzio-epe bakoitzean eginen dituzten inbertsioak zehaztuz".

Zioak: Instalazioen planen prestaketa ahalik eta gehien zehaztea, Gobernuak komeni zaionaren arabera hartzen dituen erabaki politikoen menpe utzi gabe.

137. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

72. artikulua aldatzeko zuzenketa.

72. artikuluko 1. idatz-zatiko testuaren ordezhonako hau proposatzen da:

“1. Foru Komunitateko Administrazioak kirol instalazioetarako plan zuzentzaileak prestatuko ditu, kirol instalazio eta azpiegituren sare bat, Foru Komunitateko lurralde osoan modu orekatuan hedatua, orientatu eta sustatzeko helburuarekin.

Zioak: 3. artikuluko f) letran ezarritakoarekin bat.

73. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

138. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

73. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

73. artikulua b) letrari testu berria gehitzea proposatzen da:

“izaera sozialeko beste halako zentroekin koordinaturik. Horretarako, zentro mankomunatu eta integratuen sorrera sustatuko da, energia, diru, giza eta gauza baliabideak hobierendu, gizarte aberastasun handiagoa sortu, belaunaldien arteko harremanak bultzatu eta ingurugiro mailako kostu txikiagoak eragiten baitituzte.”

Zioak: Esperientziak frogatzen du baliabide gutxiagorekin aprobetxamendua askoz handiagoa izaten dela.

74. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

139. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

74. artikulua aldatzeko zuzenketa.

74. artikulua d) letrako testuaren ordezhonako hau proposatzen da:

“d) Irizpide tekniko objektiboak, interpretazio subjektiborako aukerarik ematen ez dutenak, toki entitateek egin beharreko instalazioak edo ekin-tzak kasuko plan zuzentzaileak aurreikusten dituenetan sartu behar diren ala ez zientifikoki zehazten dutenak.”

Zioak: Banaketan subjektibotasun oro ezabatzea.

140. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

74. artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa, testu honekin:

“5. Instalazioei buruzko plana onesteak berarekin ekarriko du bertan sarturik dauden obrak onura publikokoak izateari buruzko deklarazioa, plana burutzeko beharrezkoak diren eraikin eta lursailen gain zortasunak eratzearen edo haien nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako”.

Zioak: Gobernuari planaren exekuzioa erraztea.

141. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

74. artikulua ondotik beste bat gehitzeko zuzenketa.

“74 bis artikulua. Arauak.

1. Kirol-instalazioak eraiki, erabili eta mantentzeari dagokienez, Nafarroako Gobernuak honako hauek eraentzeko arauak emanen ditu:

a) Instalazioek, zertarako erabiliko diren kon-tuan izanik, izan behar dituzten ezaugarri tekniko-

ak, baldintzak eta gutxieneko tamaina, eta instalazioak eraikiko direneko lursailen ezaugarriak.

b) Horien eraikuntza, abiarazpena, erabilera eta mantenimendua eraendu behar dituzten oinarriko arauak.

c) Instalazioen osasun-, higiene- eta segurtasun- baldintzak eta minusbalotasunak dauzkaten pertsonen instalazioetan sarbidea eta horiek erabiltzeko modua izatea ahalbidetzekoak.

2.- Instalazio publiko edo pribatuen sustatzaileek aurreko lerrokadan aurreikusitako araudia bete beharko dute erabilera publikorako instalazioak eta ekipamenduak eraikitzean.

3.- Udalek araudi hau beren udal dermioetan kokaturiko erabilera publikoko kirol-instalazio gutzietan bete dadin zainduko dute. Obra- edo jarduera-lizentzia ematean egiaztatuko da araudia betetzen dela.

Zioak: Kirol instalazioak eraiki eta erabiltzeari buruzko araudia hobeki zehaztea.

75. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

142. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

75. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau proposatzen da:

“75. artikulua.- Nafarroako Kirol Ekipamendu eta Instalazioen Erregistroa

1. Nafarroako Kirol Ekipamendu eta Instalazioen Erregistroa sortuko da, zeinak xede izanen baitu Foru Komunitateko kirol-ekipamenduak, -instalazioak eta -erabilerako gune irekiak bildu eta kontrolatzea eta kirol-ekipamendu eta -instalazioen plano orokorrak egin daitezen erraztea.

2. Foru Komunitateko kirol-Administrazioak, udalekin zein kirol-federazio eta -elkartekin lankidetzan, Nafarroako kirol-azpiegituren zentsu zehaztua egingen du. Horren ondorioetarako, kirol-azpiegituretat joko da kirol-jarduera bat egiteko baldintza aski betetzen duen gune ireki zein itxi oro, non dagoen ere. Zentsu hori Nafarroako Kirol Ekipamendu eta Instalazioen Erregistroak bilduko du.

3.- Hartara, hala Nafarroako Foru Komunitateko ente publiko nola kirol-elkarte eta erabilera

publikoko instalazioen titular diren entitate pribatuek zentsua egin eta eguneratzeko beharrezkoak diren datu guztiak emanen dizkiote Foru Komunitateko kirol-administrazioari.

4.- Azpiegiturei buruz zentsuan biltzen diren datuek ondokoak jasoko dituzte gutxienez ere:

a) kokalekua

b) titularra nor den

c) kontserbazio-egoera eta zer zerbitzu dituen

d) edukiera

e) zer kirol-jarduera egin daitekeen bertan.”

Zioak: Lege proiektuak proposatzen duen instalazioen eroldari eduki eta irispen handiagoa ematea.

143. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

75. artikulua aldatzeko zuzenketa.

75. artikulua 1. idatz-zatiaren ordean honako hau proposatzen da:

1. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak, erolda bat itxuratu eta gaurkoturik edukiko du Foru Komunitatean dauden kirol instalazio publiko eta pribatuak jasotzeko.

Zioak: Hobekuntza teknikoa egitea, Nafarroko Udal eta Kontzejun Federazioaren iradokizunari jarrikiz .

76. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

144. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

76. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

76. artikuluari idatz-zati berria gehitzea proposatzen da. Hona hemen testua:

“3. Nafarroako Gobernuak araudi berri baten bidez erregulatuko du, besteak beste, kirol jarduerako boluntarioen lan, ekonomia eta prestakuntza araubidea.

Zioak: I. tituluko 3. artikulua h) letran lege honen xedeaz eta printzipio orokorrean ezarritakoa rekin bat.

V. TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

145. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

V. tituluari kapitulu bat gehitzeko zuzenketa.

IV. kapitulua: Kirol jardueretako indarkeriaren prebentzioa

Artikulua:

Nafarroako Gobernuak edo haren organo delegatuak Foru Komunitatean kirol jardueren ondorioz gerta daitezkeen indarkeriazko ekintza edo adierazpenei aurrea hartzen lan eginen du, eta jarrera olinpikoak bultzatuko ditu beti.

Foru Komunitateko Administrazioak era guztietako ekintzak gauzatuko ditu, besteak beste:

1. Kirol jardueretako indarkeriaren zergatiari eta ondorioei buruzko azterketak egitea.

2. Gizartea, oro har, eta kirol entitateetako kideak, bereziki, prestatu eta jabeazteko ekintzak bultzatu eta zabaltzea.

3. Alkoholaren, estupefazianteen edo antzeko substantzien eraginpean dauden pertsonen kirol ikuskizunetan sartzeari galarazteko neurriak sustatzea.

4. Erregelamenduz ezartzen direnak.

68. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

146. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

68. artikulua aldatzeko zuzenketa.

68. artikulua. Erabilera publikoko kirol instalazioak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, kirol instalazioak dira beren ezaugarrien berengatik kirol egiteko erabiltzen diren lokal, dotazio edo eremuak idorpekoak izan ala ez.

2. Kirol instalazioak erabilera pribatukoak edo publikokoak izan daitezke, eta azken hauetan

daude jende etorrera librekoak, titulartasun publiko ala pribatukoak izan.

3. Kirol instalazio publiko edo pribatuak eta haren elementuak eta ekipamenduak kirol lehiaketa ofizialak egiteko erabili ahal izanen dira, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legeek eta errege-lamenduek eskatzen dituzten baldintza teknikoak eta kirol arlokoak betetzen baldin badituzte.”

Zioak: Proposatutako testua hobekuntza teknikoa da, arloa arautzen duten iturri juridikoen sistemaz (Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren kontratatzat jo duen sistema edo praktika) proiektuan egiten den aipamena ezabatzen baitu, eta argiago zehaztu eta bereizten baititu kirol instalazio publiko eta pribatu kategorian bikoitza eta lehiaketa ofizialak egiteko direnak eta ez direnak.

147. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

68. 1 artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

c) letraren eta d) letraren artean beste bat gehitzea, hauxe:

“c bis) Mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna eta trabarik gabeko zirkulazioa”.

Zioak: Foru Komunitatean oztopo fisikoei buruz dauden arau berariazkoak betearaztea, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legeak 18 bete ondoren nabari-nabaria baita erabilera publikoko instalazioetan ez dela betetzen.

148. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

68. artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

Hona hemen testua:

“3.- Foru eta toki administrazioek ikastetxeei erantsirik dauden aire zabaleko kirol-instalazioak irekita eduki behar dituzte, eskola-orduetatik kanpo (aste-bukaerak eta oporrak barne) kirola egiten duen edozein pertsonak eskura izan ditzan instalazio horiek. “

Zioak: Ezinbestekoa da instalazio publikoak irekitzea, ikusirik dagoen eskaria zein handia den.

69. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

149. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

69. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kirol instalazioak arautzen ari garela, ez du zentzurik agerraraztea instalazioei beraiei ez baizik eta bertan egin daitezkeen ikuskizun edo jardueri (kirol arlokoak izan zein ez) dagozkien betebeharrak; betebeharrak horiek ikuskizun publikoak eta ordena publikoa arautzen dituen lege indardunak jasotzen ditu, gainera, arauak hastapenean diogen bezala: "...arau orokorre agintzen dutena ezertan galarazi gabe..."

70. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

150. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

70. artikuluan 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa. Sektoreko arauak, zeinetara aginduak igorri baizik ez duen egiten, ezarriko dituzte kirol instalazioen segurtasun baldintzak eta betekizunak, bai eta titularren betebeharrak zehatzak ere horiek mantendu eta zaintzeko.

151. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

70. artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. idatz-zatiko c) letraren testuaren ordezhonako hau proposatzen da:

"c) Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren gaineko arauak ezarritako debekuak eta mugak."

Zioak: 69. artikuluari jarritako zuzenketarekin bat.

71. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

152. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

71. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iritziz, toki araubideko administrazio prozedura eta bereziki hirigintzaren eta ingurumena babesteko jarduera sailkatuen arloan udal kontuhartzailak arautzen duten legeriaren kontrakoa da, eta horrez gain ez du segurtasun juridikorik, lizentzia eman litekeelako ustezko ekintza batean oinarriturik.

153. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

71. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Hona hemen testua:

"71 bis artikulua. instalazioak eraikitzeko laguntzen araubidea.

1.- Kirol-instalazioak eraiki, hobetu eta ekipatzeko dirulaguntzak ematearren foru Administrazioak egiten dituen deialdietan ondoko baldintzak jaso beharko dira besteak beste:

a) kirol-instalazioei buruzko oinarritzko araudia betetzea.

b) instalazioa jendearentzako zabalik egonen dela, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan egon ere, bermatzea diruz lagundutako entitateak.

c) instalazioa erabili eta mantentzeko kostuak beteko direla bermatzea diruz lagundutako entitateak.

2.- Laguntza horiek Nafarroako ente publikoek eta Nafarroako Entitate Publikoen Erregistroan izena emandako kirol-federazio, -talde eta -elkarte edo -klubek eskuratu ahalko dituzte".

Zioak: Entitate pribatuentzako laguntzen araubidea jasotzea.

**72. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

154. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

72. artikulua, kirol instalazioen plan zuzentzailei buruzkoa, aldatzeko zuzenketa. Haren orde zuzenketa honako hau proposatzen da:

“1. Foru Komunitateko Administrazioak egokitzat hartzen dituen erakundeen lankidetzarekin prestatuko ditu kirol instalazioen hiru urteko plan zuzentzaileak eta jarduketaren programak, bai sektorekoak eta lurraldekoak bai orokorrak, Nafarroan kirol instalazioen eta azpiegituren sare bat orientatu eta sustatzeko, batetik, eta biztanleen kirol jarduerara bultzatu eta haren kalitatea hobetzeko helburuarekin.

2. Hiru urteko plan zuzentzaileak, plan horien exekuzioaren urteko txostenekin batera, Nafarroako Gobernuak onetsi eta Nafarroako Parlamentura igorriko ditu tramitatu eta onesteko.

3. Hiru urteko plan zuzentzaileek honakoak bilduko dituzte: jarduketa azterlanak eta planak, horiek betetzeko epeak, eta behar dituzten giza, teknika eta aurrekontu baliabideak.

Zioak: Artikuluaren xedeari gutxieneko zehaztapena ematea da zuzenketaaren asmoa, “zilegi izanen du” horrekin adierazitako borondate hutsa izan ez dadin, maila publiko guztiek parte hartzeko.

155. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

72.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“zilegi izanen du” dioen tokian “eginen ditu” esatea.

**75. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

156. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

75. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatiaren orde zuzenketa honako hau proposatzen da:

“1. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak errolda bat itxuratu eta gaurkoturik edukiko du Foru Komunitatean dauden kirol instalazio publiko nahiz pribatuak jasotzeko.”

Zioak: errolda hori itxuratzen eta gaurkotzen toki entitateek eman beharreko laguntza egiten den aipamena kendu da, lankidetzaren hori –horiek kirol instalazioen titularrak diren neurrian justifikaturik – aurreikusirik baitago artikulua horren 2. idatz-zatian.

1. idatz-zatiak zehatz-mehatz finkatu behar du norena den errolda prestatu eta gaurkotzeko eskumena, eta 2.ean, berriz, kirol instalazioen titularrak errolda horren prestatetan eta mantentze lanetan lagundu behar dutela adierazten da.

157. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

75. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatiaren orde zuzenketa honako hau proposatzen da:

“1. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak errolda bat itxuratu eta gaurkoturik edukiko du Foru Komunitatean dauden kirol instalazio publiko nahiz pribatuak jasotzeko.”

Zioak: Toki entitateen lankidetzaren aurreikusirik dago 2. idatz-zatian. 1. idatz-zatian, berriz, kome-ni da finkatzea norena den errolda egin eta gaurkoturik edukitzeko eskumena.

76. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

158. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

76. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatiko lehendabiziko lerrokadaren ordezkari honako hau jartzea:

“Erregelamendu bidez ezarriko da zer eginkizun eta eskumen dagozkion arlo horretan Nafarroako Foru Komunitateko kirol administrazioari eta hezkuntza administrazioari.”

VII. TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

159. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

VII. tituluko I. kapitulua aldatzeko zuzenketa.
Hona testua:

I. kapitulua. Titulazioak.

A artikulua. Arauak

1.- Irakaskuntza, zuzendaritza, kudeaketa, entrenamendu, animazio eta kirolarekin zuzenean lotutako beste edozein zerbitzu eman ahal izateko, botere publikoek, bere eskumenen esparruan, izan beharreko titulu ofiziala izatea eskatuko dute. Lege hau garatzeko xedapenen bidez zehaztuko da, alorrez alor, titulua izan behar horren norainokoa.

2.- Aurreko idatz-zatian ezarritako eskakizun hori benetan betetzen dela zainduko dute Foru Komunitateko botere publikoek eta kirol-federazioek.

B artikulua. Tituluen baliozkotasuna

– Federazioaren baitan izaera teknikoko jarduerak garatu ahal izateko tituluak eskatzen duten kirol-federazioek onartu egin beharko dituzte Foru Komunitatearen esparruan ofizialtzat jo diren zentroek emandako tituluak.

C artikulua.- Titulazioa sustatzea

1.- Nafarroako Gobernuak, kirol-federazioekin batera, kirol-arloko teknikarien prestakuntza bul-

tzatuko du. Halaber, kirol-irakaskuntza eta -titulazioei buruzko arauak emanen ditu.

2.- Nafarroako Gobernuak zein federazioek onartutako zentroetan, publiko zein pribatuetan, egin beharko da kirol-arloko teknikarien prestakuntza.

Zioak: Nafarroako egungo errealitatearekiko egokiagoa.

160. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

VII. tituluko II. kapitulua aldatzeko zuzenketa.

Hona testua:

II- kapitulua. Nafarroako Kirol Eskola

A artikulua.- Egitura eta eginkizunak

1.- Nafarroako Kirol Eskola Nafarroako Gobernuaren administrazio-zerbitzu bat da, kirol-arloko eskumena duen departamentuari atxikia. Hona haren egitekoak:

a) Kirol-arloko prestakuntza teknikoko programak planifikatu eta koordinatzea.

b) Zuzendaritzako kideak eta epaileak prestatzeko programak planifikatu eta koordinatzea, kirol-federazioen berriazko programak zein diren ikusita.

c) Kirol-arloko ikerketa teknikoko programak sustatu eta bultzatzea.

d) Ikastaro, zentro, titulazio eta intereseko gainerako informazioen erregistroa sortu eta kudeatzea.

e) Kirol-arloko azterlanak zabaltzea.

f) Kirolari buruzko dokumentazio-zerbitzua antolatzea.

g) Ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta kirol-teknifikazioko programak antolatu edo egitea.

h) Kirol-federazioei eta bestelako zentzoei aholku ematea teknikariak eta epaileak prestatzeko euren programetan.

i) Erregelamendu bidez esleitzen zaion beste edozein.

2.- Nafarroako Kirol Eskolak Teknikazio Zentroekin eta kirol-federazioekin koordinatu beharko du, giza eta gauza baliabideak ahalik eta hoberekin baliatzearen.

3.- Nafarroako Kirol Eskolaren antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

Zioak: Nafarroako egungo errealitatearekiko egokiagoa.

81. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

161. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

81. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

Lege proiektuaren 81. artikulua 2 eta 3. idatz-zatiak kentzea proposatzen da

Zioak: Ez dute arau edukirik, informazioa eman besterik ez dute egiten eta beraz ez dira legean agertu behar.

162. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

81. artikuluan 2 eta 3. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iritziz ez dute arau-edukirik, informazioa eman besterik ez dute egiten.

163. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

81. artikulua aldatzeko zuzenketa.

81. artikulua 2 eta 3. idatz-zatiak kentzea proposatzen da.

Zioak: Hobekuntza tekniko egitea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen federazioaren iradokizunari jarraikiz.

85. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

164. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

85. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

85. artikuluko b) idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Zehapenen arloan eskatu behar da jokabideak ongi zehaztea, eta ez da hala egiten idatz-zati honetan, "balira bezala" kontzeptuaren zehaztasun falta handiegia baita.

165. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

85. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

85. artikulua f) idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Idatz-zati horretan "bidegabeki" kontzeptua ageri da, eta gure iritziz ez da batere zehatza helburua denean zehapena jaso dezaketen jokabideak tipifikatzea, beraz, segurtasun juridikoaren printzipioa urratzen duenez kendu egin behar da.

86. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

166. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

86. artikulua aldatzeko zuzenketa.

86. artikuluko a) idatz-zatia kentzea proposatzen da

Zioak: Idatz-zati horretan "bidegabeki" kontzeptua ageri da, eta gure iritziz ez da batere zehatza helburua denean zehapena jaso dezaketen jokabideak tipifikatzea, beraz, segurtasun juridikoaren printzipioa urratzen du.

90. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

167. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

90. artikulua aldatzeko zuzenketa.

90. artikulua c) idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: idatz-zati horretan ebaluatzen zaila den kontzeptu bat ageri da: Nafarroaren irudia eta interes publikoei kalte egitea. Kontzeptua ez da batere zehatza eta segurtasun juridikoaren printzipioa urratzen du, beraz kendu egin behar da.

93. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

168. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

93. artikulua aldatzeko zuzenketa, "arrazoiturik" txertatzeko.

Proposatzen den testua: "...espedientea hasteko eskumena duen organoak zilegi izanen du, arrazoiturik izanez gero, behar diren behin-behineko neurriak hartzea..."

Zioak: Zehapenerako behin-behineko neurrien izaera dela-eta, horiek arrazoitzeko betekizuna beharrezkotzat jotzen dugu.

102. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

169. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

102. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

102. artikuluko 2. idatz-zatiko e) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: Idatz-zati horretan arau-hauste oso larritzat jotzen diren ekintzak subjektiboak izan daitezke eta honen ondorioz, segurtasun juridikoaren printzipioa urraturik gerta litekeenez, kendu egin behar da.

104. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

170. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

104. artikuluari bi idatz-zati berri gehitzeko zuzenketa.

"3. Kirol arloko epaile eta gainerako agintariengandik, beren eginkizunak betetzen ari direla, jasotako aginduak eta jarraibideak betetzerakoan jarrera pasiboa hartzea.

4. Diziiplina edo hauteskunde organoetako kideek beren eginkizunak ez betetzea edo uztea, ez betetze arina baldin bada."

Zioak: Aipatzen diren bi jokabide horiek ere arau-hauste arinak dira gure iritziz.

106. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

171. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

106. artikulua lehen idatz-zatiaren bi letra aldaketa egiteko zuzenketa.

a) letra . Proposatzen den testua:

"a) Kiroldedia ixtea, hiru partidutan gutxienez eta denboraldi batean gehienez."

f) letra . Proposatzen den testua:

"f) Puntuak, partidak edo sailkapen-tokiak galteza, jardunaldi edo proba bat baino gehiagokoa denean".

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da zehaztea zenbat denboraz itxi ahal izanen den kiroldegia eta bi urtez ixtea iruditzen zaigu dela arau-hauste mota honi dagokion zehapena.

108. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

172. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

108. artikulua lehen idatz-zatiaren a) letra aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua: “a) kiroldegia bi urtez, gehienez, ixtea.”

Zioak: gure ustez, beharrezkoa da zehaztea zenbat denboraz itxi ahal izan den kiroldegia eta bi urtez ixtea iruditzen zaigu dela arau-hauste mota honi dagokion zehapena.

IX. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

173. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IX. tituluko I. kapitulua aldatzeko zuzenketa.

IX. tituluko I. kapitulua aldatzea proposatzen da. Honelaxe:

– Kapituluaren izena aldatzea, hauxe izan dadin:

I. kapitulua. Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordea

Horrenbestez, legearen testu osoan, “Nafarroako Kirol Justiziaren Batzordea” beharrean “Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordea” beharko luke.

– Proiektuaren 120. artikulua bere horretan uztea.

– Proiektuaren 121. artikulua bere horretan uztea.

– Proiektuaren 122. artikuluko testua honekin ordeztzea:

“122. artikulua.- Batzordeko kideak eta funtzionamendu arauak

1.- Nafarroako Kirol Diziplina Batzordea bost kidek osatuko dute. Horietatik lau zuzenbidean lizentziadunak izan dira, eta beste bat gorputz-hezkuntzan lizentziaduna. Idazkari bat ere izan da, hitza bai baina botorik gabe.

2.- Kirol-arloko eskumena duen departamentuko kontseilariak izendatuko ditu batzordekideak, Nafarroako Kirol Kontseiluak onetsi ondotik. Honela hain zuzen ere:

a) Bi kide Nafarroako Kirol Kontseiluko kideek proposatuta; horiek ez dira kirol-federazioen ordezkari izanen.

b) Kide bat Nafarroako Kirol Kontseiluko kideek proposatuta; horiek Nafarroako kirol-federazioen ordezkari izanen dira.

c) Bi kide Nafarroako Kirol Institutuak proposatuta; horietako bat izanen da gorputz-hezkuntzan lizentziaduna.

3.- Bost kide titular horiez gain, kirol-arloko eskumena duen departamentuko arduradunak ordezkari kide bat izendatu ahal du arestiko hiru atal horietariko bakoitzeko, gaixotasun-, absentzia- edo hutsune-kasuetarako. Halaber, Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordeko idazkaria izendatuko du, organo horretan hitza bai baina botorik gabe arituko dena.

4.- Batzordekide izatea ohorezko kargua da, eta hortaz, jarduerak berak sortutako gastuak baino ez ditu sortaraziko.

5.- Batzordekideei legeria indardunak ezarritako abstentzio-, errefusatzeko- eta bateraezintasun-kausak aplikatuko zaizkie.

6.- Batzordekideen agintaldia lau urtekoa izanen da, urte olinpikoekin bat etorritik. Agintaldia luzatzea badago.

7.- Erregelamendu bidez ezarritako kideak hautatzeko prozedurari eta barne funtzionamenduari buruzko arauak.

Zioak: Kapituluaren osatu eta hobetzea.

123. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

174. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

123. artikuluari idatz-zati berria 2.aren ondotik gehitzeko zuzenketa.

“3.erregelamenduzko arau horiek alderdi hauek jaso beharko dituzte:

a) Arbitrajearen xede izan daitezkeen gaien zerrenda.

b) Ukitutako pertsonen arbitraje modu horiek onartzeko moduak.

c) Arbitraje modu horiek aplikatzeko prozedura, betiere kontradikzio eta berdintasun printzipioak errespetatuz.

d) Arazoak konpontzeaz arduratuko diren organo edo pertsonak eta horiek izendatzeko prozedura.

e) Laudoak betearazteko bideak.”

Zioak: Proposatutako testua hobetzea, arbitrajea garatuko duten erregelamenduek jaso behar dituzten alderdiak zehaztuz.

XEDAPEN IRAGANKORREI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

175. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Lehen xedapen iragankorraren testuaren ordezkari proposatzen dugu:

Lehena.- Estatutuen eta erregelamenduen egokitzapena

Nafarroako kirol-federazioek foru lege honetan xedatutakora egokituko dituzte euren estatutu, zuzendaritza-organoa eta funtzionamendua oro har, honek indarra hartu eta urtebeteko epean.

Zioak: Federazioentzako arautze epea zehaztea eta horretatik kanpo uztea gainerako kirol entitateak.

176. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Xedapenak ez du helbururik, zeren foru legeak indarra hartzen duenean dauden kirol instalazioak hark ezarritakora egokitzea eskatzen du, baina legea irakurrita, ez da ageri inolako eskakizunik ez eta zehaztapenik ere egokitzapena behar duten instalazioetarako –eta ez du horrelakorik jasotzerik, kontuan hartuta zein den haren helburua.

177. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iritziz, xedapenak ez du helbururik, zeren foru legeak indarra hartzen duenean dauden kirol instalazioak hark ezarritakora egokitzea eskatzen du, baina legea irakurrita, ez da ageri inolako eskakizunik ez eta zehaztapenik ere egokitzapena behar duten instalazioetarako –eta ez du horrelakorik jasotzerik, kontuan hartuta zein den haren helburua.

178. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hobekuntza teknikoa egitea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren iradokizunari jarraikiz.

179. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Bigarren xedapen iragankorraren testuaren ordezkari proposatzen dugu:

Bigarrena. Erabilera publikoko kirol instalazioak.

Nafarroako Gobernuak eta toki-entitateek urtebeteko epea izanen dute foru lege honek indarra hartzen duenetik aitzina, arkitektura-oztopoei buruz xedatutakora egokitu ditzaten euren kirol instalazioak.

Zioak: Kirol instalazio publikoak arautzeko epea zehaztea.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

180. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Lehen xedapen gehigarria egitea proposatzen da. Hona hemen testua:

Nafarroako kirol federazioek behar diren neurriak hartuko dituzte beren jardueretan euskararen erabilera normalizatzeko. Bereziki, euskararen erabilera bultzatuko dute beren kirol jardueretan eta lehiaketetan erabiltzen dituzten katalogo, egitarau, iragarki eta gainerako ikus zein entzunezko materialean.

Zioak: Kirolari buruzko foru legeak ezin ditu euskararen erabilera Nafarroako gizartearen eremu guztietan normalizatu izateko hizkuntza-aren arloan dauden xedapen indardunak bete gabe utzi.

181. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Azken xedapenetan bigarrena egitea proposatzen da. Hona testua:

Kirol federazioek lankidetzeta edo laguntza hitzarmenak izenpetu ahalko dituzte Nafarroako Foru Komunitateko zein kanpoko kirol entitate publiko edo pribatuekin elkarren artean kirol jarduerak eta lehiaketak egiteko.

Zioak: Garrantzitsua da eskumena ematea Nafarroako kirol federazioei lankidetzeta edo laguntza hitzarmenak izenpetzeko, kirolari buruzko foru lege proiektu honetan ezarritako helburuak egiaz bete daitezzen.

**AZKEN XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

182. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan lehena kentzeko zuzenketa.

183. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan hirugarrena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Liga profesionalak arauturik daude aurreko zuzenketa batzuetan.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

184. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

“Lege honen funtsezko xedeetako bat da kirola herritar ororen eskubidetzat hartzea, alegia, herritar guztiek dutela eskubidea kirola ezagutu eta horretan aritzeko, libre eta nor bere borondatez, berdintasunean oinarrituta eta sexuak, adinak edo bestelako inguruabarrek bazterkeriarako arrazoia izan gabe; ezgaituak gizartean integratzeko garrantzizko bidea dela baloratuta eta gure Foru Komunitateko ingurumenarekiko begirunea sustatzen.

185. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Testu osoan aldaketa egiteko zuzenketa.

Testu osoan Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaz egiten diren aipamenen ordean “Foru Komunitateko kirol administrazioa” esatea.

Foru Lege proiektua, abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko ekainaren 4an hartutako erabakiaren bidez, abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekola izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatu dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena

Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua

Maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legeak Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatu du.

Foru Lege honen aurreikuspenek debekatu eta zehatzen dute kasu guztietan animalia proteinak erabiltzea edozein motatako azpiproduktuak prestatzeko, gero beste animalia batzuei jaten emateko, laguntasuneko animaliak barne. Aurreikuspen horietan arazo larriak agertzen dira: batetik, arazo juridikoak, merkatuaren askatasuna eta salgaien zirkulazioa Europar Batasunean barna goberna-

zuzen dituzten irizpenen zein Espainiako Konstituzioaren hainbat manuren kontrakoak baitira, baina batez ere, arazo praktikoak sortuko dira, oinarri zientifiko sendorik izan gabe debekatu duelako produktu sorta zabala, animaliei, bai ekoizpenerako abereei bai laguntasuneko animaliei, jaten emateko erabili ohi dena eta Europar Batasunean baimenduta dagoena.

Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatu zuen maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legea bere horretan aplikatzen bada, ondorio latzak izanen ditu, duten izaera biologikoa dela-eta, bere elikaduran animalia proteinak behar dituzten animalien gan, esate baterako, arrain, orojale eta haragijaleengan, proteina horien orde ezin baitituzte landare proteinak erabili.

Horiek horrela, beharrezkoa da Abereen osasunari buruzko Foru Legearen erredakzioa, maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legean emandakoa, lehenbailehen aldatzea, haren aplikazioak sortuko lituzkeen ondorio txarrak saihesteko.

1. artikulua. Abereen osasunari buruzko Foru Legearen 26. artikuluko 2. zenbakiaren erredakzioa, maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legeak emandakoa, aldatu da. Hona hemen testu berria:

“Ezin izanen da animalien gorpurik edo haien zatirik erabili, animalia azpiproduktuak prestatzeko, gero beste animalia batzuei jaten emateko, laguntasuneko animaliak barne; guztiz debekatuta dago haiek erabili eta aprobetxatzea, Europar Batasuneko eta nazioarteko egungo araudi oinarritzkoek baimendutako salbuespenak ez badira.”

“Animalia proteina eraldatuen erabilpena animalia elikagaiak prestatzeko, Europako komunitateko eta Espainiako osasun arau oinarritzkoek lotuko zaie.”

2. artikulua. Abereen osasunari buruzko Foru Legearen 56. artikuluko 7. idatz-zatiaren erredakzioa, maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legeak emandakoa, aldatu da. Hona hemen testu berria:

“7. Animalia hilak edo haien zatiak aprobetxatzeko edozein trikimailu, baldin eta indarra duen araudiak debekatu badu.”

3. artikulua. Abereen osasunari buruzko Foru Legearen 56. artikuluko 8. idatz-zatiaren erredakzioa, maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legeak emandakoa, aldatu da. Hona hemen testu berria:

“8. Animalia hilak edo haien zatiak aprobetxatzeko jarduerak, baldin eta indarra duen araudiak jarduera hori debekatu badu.”

4. artikulua. Abereen osasunari buruzko Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria, maiatza-

ren 24ko 11/2001 Foru Legeak emandako erredakziokoa, indargabetu da.

Azken xedapena

Foru Lege honek indarra hartuko du :bon.ean argitaratzen den egun berean.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------